

METXA

Eneko Olasagastik egokitua eta zuzendua

Joseba Tapiak musikatua

Koldo Izagirrerren

Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak
narrazioan oinarritua

Ekoizpena: **TENTAZIOAk AEKrentzat**

Donostia. 2002-11-02



ESTREINALDIA: Donostiako Antzoki Zaharrean, 2003ko otsailaren 21ean

FITXA ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Aktoreak: Jose Ramon Soroiz, Ramon Agirre, Jose Cruz Gurrutxaga, Aitzpea Goenaga, Ainara Gurrutxaga eta Xabier Sarasola.

Eskenografia: Iñigo Altolagirre

Jantziak: Eli Elizondo

Argiztapena: Xabier Lozano

Argazkiak: Mikel Martinez

Diseinu grafikoa: Di-da

Komunikazioa eta prentsa: Korrika 13ren prentsa bulegoa (Maidor Beistegi, Igor Elordui)

Arduradun teknikoa: Edi Naudó

Gestioa eta administrazioa: Maite Gorrotxategi

Produktzio exekutiboa: Koro Etxebarria, Marta Berraondo

Produktzioa: AEK- TENTAZIOA

Banaketa: AEK

Julio Perugorria

Erretentxu, 32. behea. 48200 Durango

Tel: 94 681 67 43/ 609 45 75 75.

Eposta: jproducciones@interbook.net

Erabilitako abestiak Joseba Tapiaren "Agur Intxorta maite" diskotik hartu dira.

Esker ona:

Anartz Zuazua, Mikel Camino, E.A.B., Forki, Imanol Ubeda, Gaztelupeko Hotsak, Oskorri.

SARRERA

*Eskenategian METXaren gela urdina irudikatzeko
balio duten elementu urri batzuk. Musikaren lehen
konpasak entzuten dira. Musikoarekin batera
taulara AKTORE GUZTIAK datoz. Publikoari
zuzentzen dira. Textoa esatearekin batera
Agirretarren herriko plaza eta inguruak irudikatzen
duen maketa txikia eraikiz doaz.*

Agirretarren bandera/ hartu dute hankapera
Gure ametsen kondarrak doaz/ errekan behera.
Ikusirikan galera/ askok egin du atzera
Ezin omen da poza ekarri/ minduen aldera.

Agirretarrak zer garen/ esango dugu bigarren
Zutik irauten saiatzen gara/ erori arren.
Ez bagabiltza azkarren/ ez da gaudelako herren
Munduko zoro guztiak gara/ lagunak elkarren.

BAT.– Agirretarren herria ez duzue mapetan aurkituko.

BI.– Agirretarren herria ez baitago inon.

BEÑAT.– Agirretarren herria edonon dago.

LAU.– Agirretartasuna ez du sorlekuak ematen, baizik eta erorikoen minak.

BOST.– Honek besteren sagastian sartuta belauna urratu zuen, adarrak behera egin
zuelako. Horra agirretar bat.

SEI.– Sokamuturrean orkatila hautsi zuen beste honek. Agirretarra izateko modu
bat.

ZAZPI.– Horrek mendian hartu zuen min, gauez zailagoa baita amildegiak ikustea.
Ezin uka agirretarra dela.

BAT.– Beti erorian ibiltzen diren gizajoak dituzue agirretarrak.

BI.– Eta jendeak nahiago duenez minik ez hartu, gero eta bakanagoak dira agirretar
petoak.

HIRU.– Horregatik, agirretar bik elkar topatzen dutenean, tabernara doaz bizkarretik
helduta, ez diote elkarri ordaintzen uzten, lintxaferuak botatzen dituzte,
gainontzeko agirretarrek ere jakin dezaten mindunen arraza oraino bizi
dela.

LAU.– Bakoitza zenbat aldiz erori den hasiko dira kontari, erorikoaren altura luzatuz,
hezur hautsiak bikoiztuz, hartutako mina malkotan adieraziz. Eta azken
erorikoaren berri komentatuko dute gero.

BOST.– Oraindik ere bagarela!

SEI.– Oraindik ere bazagok harri zaharrean estropezu egiteko boluntariorik!.

ZAZPI .– (*Kantuz*)

Herdoildu zen igitaia/ apaingarri dago laia
Nonahi ta beti lanturu bera/ hilen kanpaia.
Agirretarrak du gaia/ iratzar dadin garaia
Harro sutzen da guk bihotzean daukagun ardaia.

*Musikak jarraitu egiten du hurrengo eszenak iraun
bitartean ere.*

1. eszena

Eszenatokiaren ezker aldean Metxaren gela urdinak itxura hartzen du. Metxa gora eta behera dabil zerbaiten bila. Lehiotik sartzen den argira ipintzen du paper bat. Azkenean, leku sinesgaitzen batean aurkituko ditu obra guztian zehar beti bilatuko dituen betaurrekoak. Behin betaurrekoak jantzita, bilatzen zuena, plano bat dakarren papera, aurkitzen du.

2. eszena

Eskuin aldean Gaztetxea itxuratuta dago. Mahai batean jezarrita hiru lagun. Metxa sartzen da papera eskuan duela.

METXA.— Arduradun batekin hitz egin nahi nuke... Egun on, gazteak. (Nesketariko batek esku artean zituen paperak ezkutatu ditu mahaiepean).

ZINEGOTZIA.— Egun on, zer dugu?

METXA.— Arazo larri bat... Injustizia bat! (Libre zegoen aulki bakarra hartu eta zinegotziaren aurrez aurreko jarri da.) Izugarria...! Nik uste dut...

ZINEGOTZIA.— Tira, tira, gizona... Lasaitu zaitez... Ez da horrenbesterainokoa izango...

METXA.— Izan ere... ezagutuko duzue Sabina, herrena, plazako errektaria, alarguna, semeak denak alabak dituen hori...

NESKA.— Bai.

METXA.— Ba argia ere moztu diote!

ZINEGOTZIA.— Beha ezazu, Agirre... herri honek arazo asko ditu, eta handiak.

METXA.— Baina...

ZINEGOTZIA.— Barka baina... zuk ba al dakizu, Nikola, zenbat arazo dituen herri honek?

METXA.— (Ahapetik edo publikoari) Asko eta handiak... (Zinegotziari:) Tira... ikusia dago zuekin ere ezin dela ezer egin...!

NESKA.— Gurekin ere ez? Zer esan nahi duzu! Norekin alderatzen gaituzu?

METXA.— Nik esan nahi nuen, ba... udaletxetik natorrela, eta alkateak esan dizkidan berdinak ari naizela entzuten hemen...

ZINEGOTZIA.— Gu alkatearen artaldekoak egiten bagaituzu, ez zinen hona etorriko...

METXA.— Zinegotzia bahaiz behintzat.

ZINEGOTZIA.— Begira... arrazoirik ez zaizu falta baina... Arazoak banan-banan hartu behar dira... Zatoz arratsaldean Sabinarekin berarekin, hartuko ditugu datu guztiak eta hitz egingo dugu Norteko Indar Argikoekin...

METXA.— Argi ibili horiekin!

Metxak zabal utzi du azkenik papera, eta mahai gainera ekarri du denek ongi ikus dezaten.

METXA.— Horra hor soluzioa halakorik berriro gerta ez dadin!

Paperari beha gelditu dira. Zinegotziak eskua luzatu eta jiratu egin du, Mutil gazte batek jiratu egin du, eta neskak jiratu egin du. Berari behatzen diote gazteek

NESKA.— ...Soluzioa?

METXA.— Pelton turbina! Zuek gazteak zarete eta... ni berrogeita hamar urte ibilia naiz kable eta dinamo artean, Norteko Indar Argikoentzat lanean eta zer edo zer ikasi dut, ez zuek adina noski, baina lehen ere baziren amaren sabeletik sortutakoak...

NESKA.— Aizu... eta marrazki hau zuk egina al da, agure?

METXA.— (*Durduzaturik gelditzen da «agure» hitza entzunda une batzuetan*). Bai neskatoa! Agureok halakoak dauzkagu. Ez al duzu inoiz entzun gizakiok bi umealdi edukitzen dutigula? Ni bigarrenean nago, eta bigarrena izanagatik, umealdian egiten diren gauzak egiten ditut. Marrazkiak, esate baterako. Horregatik, hurrengo batean, berdin esaten ahal didazu «ume». Horrelaxe: «marrazki hau zuk egina al da, umetxo?»...

ZINEGOTZIA.— Bueno, Metxa, esaiguzu zer den Pelton turbina delako hori!

METXA.— Pelton da sortu zuenaren izena, eta hor dagoen marrazkia neuk egina bista eta pulsu hobe neuzkanean, konpasik gabe aizue, konpasik gabe. Turbina bat duzue hori, uraren indarra baliatuz elektrizitatea sortzen duen traste bat...

ZINEGOTZIA.— Eta? Zer soluzio da hori?

METXA.— Zuek ez al duzue ba esaten boikota egin behar zaiela Norteko Indar Argiei?

ISILA.— Gure herria nola edo hala zapaltzen duten guztien aurka gaude

METXA.— Ba, hauxe da boikotik onena! Guk geuk sortzea gure elektrizitatea! Pelton turbina hain gauza sinplea da, etxeko kainupean jarri eta, iturria irekitzen duzun aldiro, elektrizitatea sortzen du...

ZINEGOTZIA.— Orduan, oker ez banago... argia behar genukeen guztietan urari eman behar, ezta?

METXA.— Ez, horretarako akumuladoreak daude... Eta, behar izanez gero, tailer bat ere antola liteke, hainbeste gazte dago orain langabezian-eta akumuladoreak egiteko... Zuek beharbada pentsatuko duzue agure hau burutik dagoela, baina ura doan lor genezake eta...

ZINEGOTZIA.— (*Apunteak hartzeari utzi eta burua jaso du zinegotziak geldiro*) Ura doan?

METXA.— Ura doan ez da zaila... Edateko balio ez duenez, alferrik daukagu erreka, paper fabrikek kutsatua... Turbina eder batzuk mugitzeko balio dezala behintzat ...

ZINEGOTZIA.— Mmm... Ongi... Asko pozten gaitu halako herritar kezkatua eta zuhurra edukitzeak, baina... ba al dakizu, Metxa adiskidea, zer egun den bihar? Entzun... Bihar *Ilunpe Orokorra* izeneko ekintza da egitekoa. Zuk badakizu, noski, tentsioa bat-batean jaisten baldin bada automatiko guztiek saltatu egiten dutela, eta indarrrik gabe utziko dugu Zentral Hidroelektrikoa ere. Abisu bat besterik ez da biharkoa... Ez zaitezela kezka, Sabinak izango du argia bai, eta, deskuidatuz gero, doan gainera...

3. eszena

Musikoarekin batera, albo batean, agirretar batek hitz egiten digu.

AGIRRETARRA.— Bekaizkeria gaitz zabaldua baita, Metxak beti nabarmendu beharra daukala esango dute Nikola ongi ezagutzen ez dutenek. Badakigu agure mehar honek ez dituela halakoak egiten handinahiez. Aspalditik ezagutzen dugunok badakigu Agirre'tar Nikolari Metxa esaten zaiola erraz hartzen duelako su, oso minbera delako min eman nahi dutenekin. Badakigu su hartu ez ezik, leher ere erraz egiten duela, pazientzia gutxikoa dela. Metxa motzekoa alegia. Horregatik adiskide minek Metxamotz esaten diote batzuetan, harpa jo nahi diotenean. Gainontzekoan gizon arrunta dugu, agirretarren herrikoa, agirretarren

akats eta bertuteekin, agirretarren umore garratzarekin. Oraindik ere min hartzeko prest Nikola Metxa.

(Bitartean, tailerra bilakatu du etxea Metxak, mago baten kapelutik bezala ateratzen ditu torloju, arandela, hari, lotzeko zinta... Hango kable, hemengo kisketa, mahai gaineko tornua... Puntapax okerrak zuzentzen kolpe eder bat eman dio mailuaz atzamar lodiari. Musikak laguntzen du).

RAFAGA. Agirretarrena.

4. eszena

METXA kalera doa eta egunkariak saltzen dituen PEPE topatzen du. Egunkaria erosten dio.

PEPE.— Zer, atzo kale... Ondoezik ala?

METXA.— Ez... ez... Casablancara joan behar izan nuen laguntzera.

PEPE.— Ederra zetorrek gaurkoa ere, Metxa!

METXA.— Bai?

PEPE.— Bai gizona! Ez al dituk kartelak ikusi? «Ilunpe Orokorra!» Eta ez dakik onena...

METXA.— Ez noski. Heuk esan beharko...

PEPE.— Esan zidatek, izena ezin esan diadan gazte batek esan zidak, argia emanda ikusten dituzten etxe guztiak apuntatu egin behar dituztela...

METXA.— Bai?

PEPE.— Bai... apuntatuak! Zerrenda beltza! Ulerten duk?

METXA.— Ez da egia izango... Beldurra sartzeko besterik ez duk izango...

PEPE.— Gutxi fido! Treintaiseisekoa ere gezurra zela eta, beha ezak!

METXA.— Bueno, Pepe, kobra iezadak...

PEPE.— Hi, Metxamotz, etzakela hor barrena zerrendarena zabaldu, badakik...

METXA.— Lasai, motell, ez litzaidakek batere axola herri honetako zerrikume batzuk zerrenda beltzen batean egotea!

PEPE.— Metxa... mesedez...!

5. eszena

Gaua egin da Agirretarren herrian, maketan. Lehiotxoetan argiak piztuak daude. METXA, izkin batean, zai dago erlojuari begira. Txaranga moduko musika entzuten da (Soinua, turutak eta kaja). Agirretarrak datoz, pankartekin, maketaraino, Gaztetxean ikusi ditugun berberak. ZINEGOTZIA, NESKA eta GAZTEA. METXA erdi ezkutatu egiten da. Ez badu hasieran montatzeko astirik eman, agirretarrek scaletrix bat atontzen dute eta bertan kanoi txiki bat, pankarta txikiarekin, agirretar txikiak barruan daramatzala ipintzen dute. Kamioak bueltaxka ematen du musikak eta ohiauak lagunduta. Gelditzean denek erlojuak begiratsen dituzte. Musika gelditu egiten da une batez eta altxafero-petardo bat lehertarazten dute. Ilunpe

*orokorra hasteko seinalea da. ZINEGOTZIAK
Udaletxearen atzean eragin eta farolak itzali egiten
dira. Musikak segitzen du etxeetako argiak banan
banan itzaltzen doazen bitartean. Etxe batean argiak
piztua dirau. Hara hurbiltzen da kamioia eta
agirretarrak harekin. Lehiopelan plantatuta kantatu
egiten dute.*

AGIRRETARRAK.—

Ilunpetan da kalea
Argitan hor sukaldea
Ez da oso euskaldun jatorra
Etxe hontako jendea.

*Modu batera edo bestera, haiei bizkarra hartzen
diela, METXA ilunpetik etorriko da Udaletxearen
aurrean dagoen iturriraino eta zertxobait erantsiko
dio.*

*Agirretarrak dena ilunpean geratu dela badoaz.
Musika haiekin batera galtzen da eta iturriko uraren
hotsa gailentzen da herrian eta antzokian.
Pixkanaka, iturri gainean dagoen bonbilatxo piztu
egiten da.*

RAFAGA. Agirretarrena

6. eszena

*Bizartegian, SIMONEk BEZERO bati bizarra egiten
diolarik METXA sartzen da. Sarrerako zintzarriak
iragartzen du.*

SIMON.— Hori probokazio bat izan zuan...

BEZERO.— Seguru Norteko Indarrek agente bat bidali zutela hori egiteko...

SIMON.— Hainbeste ere... Egunon, Metxa. Aspaldi zu hemendik azaldu gabe. Itxoin
egin beharko duzu

*METXA eseri egiten da besteei bizkarra eta guri
aurpegia emanez.*

SIMON.— Ba tipo arraro bat ikusi omen zuten pakete batekin.

BEZERO.— Patxiren tabernan kanpotar batzuek bazkaldu zuten atzo...

SIMON.— Ba nik entzun diat gazte taldean gerla dagoela, zatiketa, eta beren arteko
kontua dela dena...

BEZERO.— Egin duenak egin duela, txanblazo ederra eman die gazte harroxko horiei!

SIMON.— Ba gazteen elkarteko buruetako batek komentatu zidak lehenago,
publizitate hutsa dela atzokoa...

BEZERO.— Publizitatea?

SIMON.— Bai... Ba omen zegok norbait turbinak edo direlako tramankulu horiek
saltzeko interesa duena, eta horretxegatik egin omen zian atzokoa...
Aprobetxategi bat...!

*Itzali zaio irribarrea Metxa gizajoari. Dar-dar egiten
dio egunkariak eskuetan.*

METXA.— Zinegotzi txatxua! Pagatu behar didak hauxe! Larrutik gainera! (*Egunkaria itxi eta altxatu egin da.*)

SIMON.— Baina... nora hoa hain presaka, Metxa? (*Alde egiten du*) Metxa, nahi duk txanda gordetzea...?

METXA.— Zeregin larri bat daukat bizartegian denbora eta pazientzia alferrik galtzeko. Esplikatu behar diot azkar usteko bati, besteren ideiak paperean apuntatu ondoren gaizki esaka jarduten duen bizartxo bati, zergatik esaten didaten Metxa ez ezik Metxamotz...

RAFAGA. Agirretarra

7. eszena

AGIRRETARRA.— Gauza gutxi dago Metxarentzat Beñat agirretar txipiaren bisita bezalakorik. Maite du biloba. Biloba esaten dio baina anaia Martinen alabaren haurra da. Gizontxo dago Beñat, eta aldian poztu egiten da Metxa, umetan, ez traumatzearen, ezin esan izan zion gauza mordoa esan ahal izango baitio laster. Baina aldian tristetu ere egiten da, sumatzen baitu Beñaten bisitak gero eta bakanagoak izango direla, nahiagoko duela adiskideekin, eta Casablancara, anaia Martinen baserrira, igandeetako bazkarietara inoizka besterik ez dela azalduko.

METXA.— Lege hau ez du inork aldatuko: gazteek zaharrekin nahi ez. Mahaian iritziak ematen ere hasia duk!

AGIRRETARRA.— Bere antza hartzen dio Nikolak Beñati, izan ez duen haurra ikusten du hemen, etxeko sukaldean, buzoian gainezka zeuden zorroak mahaian uzten dizkiolarik.

BEÑAT.— Hauteskundeetako publizitatea dira denak!

METXA.— Barka ezazu, Beñat, baina ez ditut betaurrekoak inon aurkitzen...! Hau burua!

BEÑAT.— Nahi duzu laguntzea bilatzen?

METXA.— Ez, ez... azalduko dira behar ez ditudanean, zapata barruan edo izara azpian edo konjeladorean... Irakur itzazu, irakur itzazu banan-banan zer dioten...

Zorro bat urratu, barruan tolestuak datozen paperak zabaldu eta aurrez aurre jesarri den aitontxipiari irakurtzen hasi zaio Beñat.

BEÑAT.— «Agirretarrak herria gara...»

METXA.— Ez zegok gaizki...Eta zuk zer uste duzu? Uste duzu agirretarrak herria garela?

BEÑAT.— Bai...(*Zorroa urratzen amaitu eta barruko paper tolestuak zabaldu ditu. Hauek ere koloredunak dira.*) «Herria agirretarrak gara...»

METXA.— Hauek ere arrazoia dutela esango nuke nik... Ez da hala, Beñat?

BEÑAT.— Bai...

METXA.— Agirretartasuna eta herritartasuna elkarri lotuak egon dira beti. Gure historia ikusi besterik ez dago...

BEÑAT.— «Herria gara agirretarrak...»

METXA.— To! Hau ere ez da gezurra!

BEÑAT.— Niri honek eskolaurrean kantatzen genuen «Akerrak adarrak okerrak ditu» ekartzen dit gogora.

METXA.— Egia esaten dute hiru paperek, baina hirurak ere egia desberdinak dira... Egia batek egia asko ditu barruan... Ulertzen duzu, Beñat?

BEÑAT.— Bai... Idoiari oparitu zenion panpina rusoak bezala.

METXA.— Horixe!

- BEÑAT.**— Ba, etxean esaten didate gazteegia naizela gauza batzuk ulertzeko...
- METXA.**— Zer gauza?
- BEÑAT.**— Nik jakin nahi nuke zertarako den politika.(...)Politika gauza zikina dela esaten didate etxean...
- METXA.**— Beharbada bai, bizitza bera ere ez da oso garbia zenbaitetan... Kontatuko nizkizuke nik...
- BEÑAT.**— Politiko guztiak berdinak direla, gezurra besterik ez omen dute esaten...
- METXA.**— Batzuk besteak baino berdinagoak...
- BEÑAT.**— Zer...?
- METXA.**— Ezer ez... Hori abereek iraultza egin zutenean bezala da. Bota zuten nekazari alproja hura baserritik, eta gero elkarren aurka hasi ziren nor jarriko zen agintari...
- BEÑAT.**— Ez luke agintaririk egon behar!
- METXA.**— (*Irribarrez*) Ez... baina gizarteak behar du arauren bat, legeren bat. Guztien onerako lege bat, eta denek gordetzekoa. Hortxe dago kokka. Eta horretarako harizpekoa sortu zuten, haritz zaharraren azpian egin beharreko biltzarra, lege berriak sortzeko. Harizpekorako ordezkariak hautatzea erabaki zuten, eta orduan, bozkak biltzeko, hor jantzi da otsoa ardi larruz behiei larre puska bat kendu behar zaiela esaka, ardia otsotu da zakurra katetik libratuko duela zin eginez, ahatea zakurtu, katua oilotu, oilarra zekortu, astoa usotu, armiarma xagutu... egundoko iskanbila. Egon, egon, uste dut hemen nonbait egon behar duela historia hori kontatzen zuen liburua... Ez, hobe zeu ere etortzea, betaurrekorik gabe ez dut aurkituko, zatoz gela urdinera... Aspaldiko kontuak dira, orain ez zaizkio jendeari ardura... Kanposantuko paretarena bezala da...Badakizu, ez dago ikastolatik urruti...
- METXA.**— Gaur egun ez dira nabaritzen... Baina hantxe, kanposantuko paretan egon dira markak urteetan, eta denok genekien zerenak ziren, baina inork ez zuen hitzik ateratzen... Beldurra zegoen, eta beldurra zegoela aitortzeko beldurra ere bai, oraindik ere zenbaitzuek ez dute ikara hezurretatik atera...

MUSIKA: LEN AMAR LAGUN GINAN ETXEAN

Aitzpea Goenaga

Sentimentu asko dauzkat nerekin
 orain kontatu biarrak,
 ez dakit nola zuzenduko'iran
 egin dituzten okerrak;
 pazientzitik ez naiz atera
 Jaungoikuari eskerrak,
 leku askotan jarri dituzte
 tristura eta negarrak:
 len amar lagun giñan etxian
 ta orain iru bakarrak.

Atenziyua izan zazute
 nik esandako itzakin:
 nere biotzik ezta poztutzen
 dirua eta gauzakin,
 eztakigu noiz jarriko geran
 konsuelo ta pozakin;
 bi seme illak, beste bi preso,
 beste bi non dan ez jakin,
 milagro ezta ni egotia
 kuidado eta kezakin.

Milagru ezta pena aundiya
izatia biyotzian,
negar-malkuak saltatzen zaizkit
iñoiz gogoratutzian;
ezeren mantxik eta batere
kulpa gabiak il zian,
beste bi preso Ondarretatik
San Kristobala joan zian,
zer kontatua izango dute
elkarrengana biltzia

8. eszena

*Eskenategiaren eskuinera, mahai baten inguruan,
HIRU PERTSONAIA dago. METXA deitzen dute. Hau
harrituta inguratu eta aulki libre batean jesartzen
da.*

IRAKASLEA.— Agirre jauna, biziki eskertzen dizugu herriko ikastolan irakasle eta gurasoen artean antolatu bilgune honetara etorri izana.

METXA.— Hilgune?

IRAKASLEA.— Ez, ez, zurekin solasteko... Queríamos hablarle sobre las conversaciones que tiene con su...

BEÑAT-en AMA.— Osaba, Beñatek esan digu zuk kanponsantuko paretan gertatutakoa kontatu diozula...

IRAKASLEA.— Haurrekin kontuz ibili behar da, Nikolas...

METXA.— Nikola. Eta nik egia baizik ez diot kontatu.

ANDEREÑO.— Tira, hurrei ez zaie gezurrik esan behar noski, baina gauza gordinegiek ez diete onik egiten...

IRAKASLEA.— Historia horrek trauma bat eragin diezaioke...

METXA.— Klabikula hautsi nuenean ere haraxe joateko jarri zidan medikuak paperean, traumatokira... Nire lagun asko fusilatu zituztela besterik ez nien esan.

ANDEREÑO.— Baina, gauza horiek esatean kontuz ibili behar da.

IRAKASLEA.— Ez da komeni hurrek gauza hauek jakitea...

METXA.— Eta...? Bilera honetan, jende helduen artean, egia esatea gordinegia al da?

(Irri egiten dute denek)

IRAKASLEA.— Tira, Nikolas...

METXA.— Nikolas ez, Nikola.

IRAKASLEA.— Barka, Metxa...

METXA.— Metxa, bai, su hartzen duena.

BEÑAT-en AMA.— Lasaitu zaitez, osaba...

METXA.— Su hartu eta erre ez, ulertzen duk?

IRAKASLEA.— Zeu ez, baina haurrak erre litezke: zenbait gauza...

METXA.— Haurrak? Ez motel! Haurrak ez dituk erretzen, haurrak piztu egiten dituk!

ANDEREÑO.— Batzuk pizkorrak dira, baina beste batzuk motelak. Kontuz ibili behar da, haur bakoitzak bere erritmoa dauka.

METXA.— Haurren beldur zaretela ematen du.

ANDEREÑO.— Haurrak zapuzteko beldur.

METXA.— Nik zapuztu egin ote nituen ba?

IRAKASLEA.— Ez genuen horrelakorik esan nahi, guk esan nahi genuena zen...

METXA.— Esan gehiegi egiten duzue, lehen ere. Gehixeago entzutea komeni zaizue zuei.

BEÑATEN AMA.— Zeu zara entzun nahi ez duzuna, kontua haurrak ez traumatizatzea da...

(Altxa egiten da Metxa, eskuin belauna igurtziz)

METXA.— «Haurrak ez traumatizatzea»... Barregarria da. Nik ez nituen haurrak traumatizatu. Haurrek askatasuna ematen didate hizketan egiteko, zuek ez.

IRAKASLEA.— Aizu, aizu, aizu... Zu hemen nahi dituzunak ari zara esaten.

METXA.— Ez. Nik ezin ditut esan-beharreko batzuk zuen aurrean esan.

Traumatizatutakook bakarrik ulertzen dugu elkar. Eroriak badauka belauneko minaren berri.

(Elkarri begiratzen diote denek, harrituta, burlaizez.)

BEÑATEN AMA.— Osaba...

(Hanka egiten du Metxak).

METXAK guraso-irakasleak utzi eta publikoari zuzentzen zaio.

9. eszena

METXA.— Bilera hartaz anaiaren alabak ez dit deus esan egundaino. Baina geroztik ez dit hots egin zereginak dauzkala-eta ea Beñaten bila joango naizen... Astia izango du orain bera joateko. Egia esan, elizatik hasi eta kanposanturaino joan naiz. *(Maketa osatzen doa: Eliza eta kanposantua.)* Lekua egina daukagu aspaldian harren erresuman... Oraindik bizi gara baina ez dakit nola ez nintzen gerran hil, Matxitxakoko hartan. Agirre'tar Nikola hau, Metxa izenobez, Bizkaia itsasontziko konbaterako lemazain izana naiz, Alejo Bilbao komandantearen konfiantzazko pilotua, Beñat... *(Beñat dagoen lekura hurbilduz, gela urdinean, maketa ondoan.)* Atso-agureok maileguz bizi garela esan ohi da, baina niri beti esan izan didate mirariz bizi naizela... Ez, ez da gerra kontua. Sei urte nituen nik orduan. Obispua etorria zen kanpai berria estreinatzen zelako gure elizan. Baita Gobernadorea ere. Ni ate ondoan nengoen leku on bat hartu ahal izateko koruan kantarien ondoan. Hasi zen kanpai berria danga eder batean hamabiak jotzen, eta denak liluratuak kanpaiaren durundioak hankazolan egiten zigun kilimarekin, eta hamaikagarrenen horretan hor entzuten da egundalako suntsitzea, eta mundu guztia orroka izaturik kanpaiak dorretik behera egin duelako. Gero kontatu zidatenez, lehen izua pasa eta garrasiak isildu zirenean hurbildu ziren pixkanaka kanpai ingurura, eta orduantxe jo zuen kanpaiak hamabigarrena. Miraria zela-eta hasi ziren espantuka, denak elizan sartu eta txoratuak bi tonako kanpaitzarrak inor hil ez zuelako eta lurrean zegoela hamabigarrena, mezarakoa, jo zuelako. Don Anakleto, jate apustuak egiten zituen parroko zahar hura, sekulako sermoia hasi omen zitzaien botzen. «Jainkoaren abisua izan dugu!» Obispuaren aurrean luzituz; sartzen omen da Moriko tximista baino areago elizan, igotzen ditu eskailerak salto bitan, heltzen dio sotanatik Don Anakletori kulpitutik behera ekarri nahi duela, eta hor sortu omen dute barregarritzko iskanbila, parrokoa «Deabruaren amorrazioa da hau!», Morikok sotanari uzten ez diola, eta

sakristaua «Parte gaiztoko hori!» zakur gaixoari bizkarra hautsi nahian joka. Askatu beharko sotana bizia galduko ez bazuen, eta ihesari eman dio Morikok sakristaua atzetik dakarrela. Sakristaua atarian mehatxuka gelditu zaiolarik, haiek lanak Morikorenak: aurrena kanpai ertzeko lurra eginahalean harrotzen, gero sakristauari zaunka minduan, lasterka eginda santujale harenganaino. Kanpai ertzeraino etorrarazi du noizbait. Harrotu zuen ba ozta argi izpi bat kanpai barrura sarten uzteraino, eta lehen ametsetan bezala zaunka urrun haiek ozen entzun nituen eta ezpainak zirrikitu hartara hurbilduz murmuriatu nuen: «Moriko, Moriko!». Hamaikagarrena jota kanpaia amildu zenean, espartina lotzen makurtua nintzen orduantxe. Ilunpea egin zitzaidan lurrikara batean. Kanpaiak azpian harrapatu! Ikaratu nintzen ni ere... Zutitzerakoan hamabigarrena jo nuen buruarekin. Entzungo zuten bai, ni kaskagogorra izan naiz txipitatik... Atera nintzenean azazkal guztiak hautsiak eta eskuak odoletan nituen Morikok bezala lurra harrotzez. Ilunpetik irten berrian itsutu egin behar izan nituen begiak, eta konturatu orduko denak besarka eta Obispua bera bedeinkazioka eta arropatik tiraka erlikia eramateko eta miraria zela eta nik al dakit. Amak negarrez pasa zuen egun guztia jendeak gaiztoz behatu ziolako semearen falta ez nabaritzeagatik, eta nik, nik Morikoren bila atera nahi nuen, lasterka egin belar artean, haren izena oihukatu, Morikooooo!, pikondopean etzan, langak saltatu, librean zoratu...

10. eszena

AGIRRETARRA.— Metxak idazletzat zeukan bere burua, bere bizi luzeko pasadizoak kontatuz liburu bat idazten ahal zuela uste zuen Uztapide zaharrak bezain txukun jubilatuaaren arratsalde luzeak etxean atseginez emateko, Aitonenean karta jokoan edo Patxiren tabernan porroiaren aurrean tertulia aspergarrian ibili behar gabetanik, baina orain ari da ikasten zer den benetako mintxuria, paper hutsak ematen duen bihotzmina. Egia da irakasleak denei esan diela zer edo zer, lan guztiak aztertu eta kritikatu dituela. Egia da, beste askori ez bezala, zorionak ere eman dizkiola euskara idatzian egin duen aurrerakadagatik. Egia da bere gelakideek ere pozik irakurri zutela eraman zuen idatzia. Egiak dira baina agureak ez daki zer duen.

*Eszenarioaren ezker aldean euskaltegibateko gela
iturutzen da. IRAKASLEA, METXA eta IKASLE
batzuk daude.*

MAIXUA.— Nola arraio suma zezakeen zakur batek kanpaiekoa zeu zinela... Asmatuak asmatu, ez ibili gezurra egiatzat saltzen... Hemerotekan jardundut miatzen mende honetako lehen hogeita hamar urteak eta han ez da kanpai amiltzerik ageri Euskal Herri guztian...

METXA.— Asmatzea libre ez balego trenak baperez ibiliko lirateke oraindik..

MAIXUA.— Gauza gehiegi kontatu nahi izan ditut...

METXA.— Noski, lehendik ederki mututuak egon behar izan dugu!

MAIXUA.— Ez duzu adierazi nola irten zinen kanpaipetik..

METXA.— Ez al dut idatzi ba azazkalak hautsiak eta atzamarrak odoletan irten nintzela? Kanpaiaren ertzaren azpitik zulo bat eginez Morikok bezala, lehen gure plaza lur hutsa baitzen,

MAIXUA.— Hala ere, Nikola, ez da ongi ulertzen, mirariaren kontra jardun ondoren mirariz bezala irteten da protagonista itxituratik. Beste era bateko irteera pentsa zazu.

METXAk zigarroa piztu du eta eztulka hasi da.

MAIXUA.— Ez zenuke erre behar. Zigarro bakoitzeko astebete kentzen diozula biziari ez al zizun esan medikuak.

METXA.— (*Zutituz eta alde eginez*) Urterik gabe gelditua naiz orduan! (*Publikoari*) Egunkarietara jo dik egiaren bila... ez duk ergel makala!»

KANTUA: GERRAKO GURE IBILERAK

Pepe Bolunburu. 1937

Oraintxe kontatuko dizuet
gure gerrako historia,
egin genduan bizimodu bat
guztiz ikaragarria:
denbora dana pasatu degu
hegazkinen ihesian,
purga beharrik ez degu izan
gerra denbora guztian

Guregatikan ez dute esango
balientiak geranik,
zaratatxo bat entzun orduko
hasitzen ginan ihesik.
Gure geran baino azkarragorik
oraindik ez da ikusi
Kiputxaneko Periko berriz
danon artean nagusi

Eibar aldetik irten genduan
antzintziketan Deustura,
Deustutik berriz estu ta larri
joan ginan Cabezon-era,
Cabezondikan Borines-era,
Borinestikan Nava-ra
Navatik berriz Candas-era ta
sartu ginduzten barrura

Izugarrizko bizimodua
jarri digute oraintxe:
ondo neurtuta daukagu ura
ogirikan ez sobrante
eskabetxeko sardina latak
txorizo ta txokolate...
Berrido ere kalabazia
aziko jaku bastante.

11. eszena

METXA eta BEÑAT berriz ere gela urdineko argipean.

METXA.— Uda hartan markesaren lurretan ibiltzen ginen jolasean. Pikondotik erorita ez da kolpe handia hartzen, baina bazeuden harri kozkor batzuk azpian eta belaunarekin jo behar. Min hartu nuen eta negarrari eusten gelditu nintzen, besteek, eta Rufinok ere bai, barre egiten zidatela. Odola gozo zihoakidan aztalean behera.. Etzan egin nintzen, eta orduan bizkietako batek «Zakurrak, zakurrak!» eta ihesari eman zioten denek. Usnaka heldu zen, arnaska. Beldurrak nengoen, baina ez nuen indarririk altxatzeko. Hankatik gora hasi zitzaidan odola zupaka. Ez nuen zakur hura ezagutzen, galdua edo nonbaitetik eskapo egina izan behar zuen. Moriko jarri nion izena, aitak Matteori saldu berria zion bigantxarena. Ilegorri, belarri-tente, mutur-zorrotz, letagin-zuri... Gaztea zen, gihartsua, isats kalpartsukoa. Nik ere katea hautsi nuen, lagunak frontoian edo kanposantuan utzita hasi nintzen abiatzen Markesareneko mugetara. Morikorekin elkartzten nintzen pikondopean eta lasterka zoroak egiten genituen, borroka egiten genuen malkarrean behera, soroak hondatuz. Leher eginda etzaten nintzenean, nire belaun gainetan jartzen zuen muturra. Librea nintzen harekin, haren izena oihukatzen nuen: Morikoooo!! ...Lapurra zen. Bizkiak eta bere koadrilakoak frontoian ari ziren eta baten batek huts eginda pilota atzeko koadroetaraino heldu zen firurika. Iturri ostetik masa gorrixka iletu bat azaldu zen, hartu zuen pilota ahoan eta pilotariak segika hasi zitzaizkionerako adreilu fabrikatik behera ezkutatua zen. Nik irri egiten nuen, eta Jerolimok galdetu zidan ea zakur hura ezagutzen nuen, norena zen. Nik ez nekien ezer. Ba kontuz ibiltzeko, ea muturreko batekin hortzak zuzentzen zizkidan. Ahantzi egin nintzen mehatxu hartaz, eta handik puska batera, geu ari ginela, berriro azaldu zen eta pilota eramane zigun inork heldu ahal izan baino lehen. «Moriko, Moriko!» egin nion dei, baina ez ninduen ezagutu. Altxatu ziren iturri inguruan tertulian zeuden kankailu haiek, eta hurbiltzeko, hurbiltzeko pixka bat. Jerolimok atzapar zakarrak zituen, basamutila zen. Ea non gordetzen nituen pilotak. Bere kulpagatik jipoitu ninduten, baina gero bizia salbatu zidan. Moriko begitriste. Ez genuen berriz elkar topatu. Ez nuen jakiterik izan norentzat egiten zuen pilota biltzea. Hurrena ikusi nuenean Exkerraren sorbaldan zihoan, buruz behera, hilik. Moriko begilun. Eta herriko umeak, eta Rufino ere bai, haren atzetik jauzika eta ausartarena eginez isatsari txandaka helduta. Ni atzetik nindoakien, «Moriko, Moriko!», negar batean. Ez nuen indarririk nire lagunei kolpeka hasteko. Patxik aita ere tabernaria zuen, eta hark erosi zion Morikoren gorpua Exkerrari, oilo asko eramane zela piztia hura azken boladan eta diseckatu egin behar zuela kupel baten gainean paratzeko. Orain botila artean dago. Triste nagoenean haraxe joaten naiz gehixeago tristetzeko, eta bertsotan hasten naiz ahapetik:

*Txakur txiki gorritxo bat
faltatu zait neri,
poztuko ninduke berriz
etor ahal baledi.
Azeria zelakoan
hila zen ageri,
katea hausten duena
erne bizi bedi.*

12. eszena

AGIRRETARRA.— Egia esan, ez lukete Metxa erraz eramango tren xeble horretan mendian gora, dena frantsesez mukuru betea, hango *pardon, très joli, oh là là* entzun beharrez, denak argazkiak tira ahala egiten. Behin oinez izan zen hegoaldeetik, sasoi hobearen orduan, Altxatetik gora, udako goiz euritsu batean, iloba ihes egin berria zelarik Iparlandara, agirretarren oihan eztera. Telefonoz hots egina zion ilobak berak, ea elkar ikusiko zuten Larruneko gailurrean.

Eskailera bat erabiliz Larrun irudikatzen da. Bi bandera txiki, espainiarra eta frantsesa, gainean, ezker eskuin jarrita. METXA alde espainiarretik igotzen da, eta ILOBA alde frantsesetik.

AGIRRETARRA.— Ilobak ez zuen gurasoekin egon nahi, ez baitzuten ulertzen zertan sartu behar zuen politikan eta halako zirtzilkerietan, ingeniari ikasketak alde bat utzita. Ez ulertzeaz gain, gaitzetsi ere egina zioten portaera.

ILOBA.— Uste dut, kartzelan egonda ere, gurasoak ez litzaizkidakela bisitan joango.

METXA.— Gogorra baina hala duk. Ongi ezagutzen diat nire arreba...

ILOBA.— (*Isilune baten ondoren*) Mesede bat eskatu nahi dizut.

METXA.— Nahi duana!

ILOBA.— Bueno, osaba, konpromiso bat izan liteke...

METXA.— Hamaiketakoa egiteko hots egin didaala esaten badidak, ez nauk gehiago etorriko!

ILOBA.— (*Papertxo bat luzatuz*) Aneri emaiozu. Ane, Patxi tabernariaren alaba.

METXA.— Eskerrik asko konfiantzagatik. Gerratean enlaze ibili nintzeneko lan berdina eskatzen didazu... Eta eskertzen dizut ere papera ez irakurtzeko ez eskatua. (*METXA arin eta pozik jaisten da eskaileratik eta AGIRRETARRAren parera iristean*) Hau bezalako ofizialak izan bagenitu Legutioko ofensiba zoro hartan...

AGIRRETARRA.— Orain Anerekin etortzen da urtean hiruzpalautan, iloba ikustera. Batean bizar, bestean mustatx, hurrengoan ilegorri... Erne ibili beharra dauka, paperak ere ez ditu oso legezkoak mutilak. Agureak ez dio galdetzen zertan dabilen, sasiko lanak isiltasuna eskatzen baitu.

METXA eta ANE ILOBAREKIN biltzen dira

ILOBA.— Osaba, Ane ta biok Larrunera igoko gara.

METXA.— Segi, segi lasai zuek. Izango duzue zertaz hitz egin eta.. Tabernan hartuko dut kafea. Telebistan pilota ematen dute gainera. Segi zuek.

*Tabernan METXA bertako BATENGANA hurbiltzen da.
Telebistari begira jartzen dira biak.*

METXA.— Ongi ari dira, e?

BERTAKOA.— Bai, azkaindarrok badugu pilotan funtsik! Ezagutzen duzu Panpi?

METXA.— Ikusi izan dut telebistan...

BERTAKOA.— Izigarrizko pilotaria. Betetzen ditu horrek Españako fronton guztiak!

METXA.— Españakoak?

BERTAKOA.— Bai gizona, Españako fronton guztiek nahi dute Panpi: Iruñeko Labritek, Eibarko Astelehenak, Tolosako Beotibarrek...

METXA.— Ba ni Tolosakoa nauzu.

BERTAKOA.— *Tien*, iragan astean izatu nuzu Panpi ikusten...

METXA.— Eta han nola egiten duzu, frantsesez?

BERTAKOA.— Frantsesez? Ez gizona, ez, han eskuaraz egiten dugu korredoreekin eta tabernariekin. Anitz adiskide ditut nik han.

METXA.— Noski, denok enbor bereko adarrak garelako. Tolosan eta Azkainen, denok berdin eskualdunak. Han euskeraz, hemen eskuaraz, han *leporaino betea*, hemen *mukuru betea*, zuek *amultsuki* eta guk *maitekiro*, zu *beha* zaude eta ni *begira* nago... Bakotxak bere hizkera, eta guztiok agirretarrak. Denok haritz zahar bereko adarrak. Mugaren bi aldeetan Ezkur Herria!

BERTAKOA.— Beharba arrazoina duzu... Zu bezalakoa niz...

METXA.— Noski, haritz bereko adarra!

BERTAKOA.— Ba... Uste dut ni ere espainula nizala...!

METXA.— Hik... Hik... Tira, tira, tira... Hoa Larruneko puntarat torero traje baten erosterat! (*Ukabilak estutu eta jiratu egin da. Azkainadarrengandik urrundu eta kamareroari zuzentzen zaio.*) Kafe bat!

KAMAREROA.— Solo o cogtado?

KANTUA: LABAN DAUKAGUN OPILLE

Utarre, 1937-II

Estuntza txarrik ezautu bada
sekula Euskal Errian
oraintxe gagoz estu benetan
itsaso bien erdian,
kanpotik daukuz arerijuak
baita etxe barrenian
geuri burua austeko gertu
usterik gitxienian,
augatik gagoz sarri ixillik
itz eñ biar geunkenian

Batzuentzako miñ andia da
gure gauzak ikustia
itxura danez gure gauzona
eurentzako da kaltia
noizik beiñ jaurti arrikada bat
ta eskuak gordetia
erakusten dau dabiliena
guzurre eta nastia,
usterik bako egunen baten
agertuko da gustia.

Soiñ asko dagoz lutoz jantziak,
begi askotan negarra,
baña ez aztu Larrazabalgo
aita Sabinen diadarra.
Seme leialok gertuak gagoz
zaintzeko gure Ama Zarra,
alperrik dagoz Alemania,
Portugal eta Italiarra,
geu il ezian ez da galduko
Euskalerriko indarra

Gora euskotar abertzaliak
gudari ta eusko langille
iñor ez dua geu ez bagara
gutzat gauzonaren bille.
Begiak argi, adiña garbi

mingaiña ixil-ixille,
garaian gagoz erakusteko
zein dan eiztari abille:
zutik guztiok iñork jan barik
laban daukagun opille.

13. eszena

*Eszenarioaen ezker aldean, gela urdinean, METXA
eta BEÑAT. Eskuin aldea, mahai gainean
hauteskutxa ipintzen delarik, hautesleku bat
itxuratzen da.*

BEÑAT.— Orduan hauteskondeek ez dute ezertarako balio, denak gezurretan ari badira...

METXA.— Denak, denak... Katu oilotuari ez zaio jaramon egin behar... Katuak egunero zer egiten duen hartu behar da kontuan, Beñat...

BEÑAT.— Bai, batez ere xagua baldin bazara!

Eskuin alderuntz doaz hautetxera.

BEÑAT.— Hementxe zaude, C mahaia da zurea, lehen solairuan.

METXA.— Oso ongi. Goazen, Beñat.

BEÑAT.— Kanpoan itxoingo dizut. Ikastolako lagun bat ikusi dut hor, eta harekin geldituko naiz hizketan.

METXA.— Ez, lagundu niri. Etorri. Sartu hor barrura, Beñat. Sartu eta zeuk aukeratu. Eta zorroa itxita ekarri niri!

BEÑAT gortina atzean desagertzen da.

METXA.— Ez, ez da beharrezkoa gaurko hau isilik gordetzeko eskatzea Beñati... Badakit ez duela etxean kontatuko. Eta bere gurasoek ezer esaten baldin badidate badakit zer erantzun, betaurrekoak galdu ditudala eta ezin nuela bozka ongi aukeratu... Ez da gezur itsusia... Zer behatzen ote du txoripito horrek... Bazekiat bai, zeini ematen dioan hik bozka... Ez, ez dut zorroa sakelan sartuko, ongi agerian eraman behar dut, Beñatek ikusteko moduan... Ez dezala pentsa katramilaren bat egiten diodanik ...

*Irteten da Beñat gortina ostetik. Zorroa luzatzen dio
aitontxiari. Metxak oso serio hartzen du, eta
lerroan jarri Beñatek egindako aukera bozkan
emateko.*

BEÑAT.— Gelakoek ez didate sinetsiko... Bozka eman dut hamabi urterekin... Gehienek ez dakite alderdiak bereizten, etxean entzuten dutena errepikatu besterik ez dute egiten... Sekretu bat izango da aitontxiaren eta bion artean, ez diet gurasoei ezer esango... Iratiri bai, esango diot... Seguru oraindik atarian dagoela zain... Banoa lasterka... Komunera noala esango diot... Badakit ez duela zorroa irekiko nik zer aukeratu dudan jakiteko...

METXAk boza ematen du.

AGIRRETAR PRESTUA.— Orain ere badarabil zer edo zer Metxa arraio honek. Hori da piura. Hauteskundeak ez dira ba igandero izaten. Zer erakutsi nahi ote

digu egin duen horrekin... Ume batek guk adina dakiela politikan? Biloba izan behar du mukizu hori. Badute bai biek ere ijito antxa... Mahaiko Presidenteari esango diot. Politika ez da ume jokoa gero...

METXAK eta BEÑATEk etxerako bidea hartzen dute.

BEÑAT.— Aitontxipi... Gu zer gara?

METXA.— Agirretarrak!

BEÑAT.— Bai, baina... Idiak, oilarrak, edo katu oilotuak, asto usotuak... zer gara?

METXA.— Ba nik uste... Bai, nire iritziko, inurriak gara gu.

BEÑAT.— Inurriak?

METXA.— Bai... Inurria beti lanean... Nahiz behiaren gorotzak edo ugazabaren botak etxea birrindu, hartu eta berriro lanean inurria. Etxea jasotzen. Lurpean. Azpilanean. Ulertzen?

BEÑAT.— A!

METXA.— Zer ba? Zergatik galdetu didazu hori?

BEÑAT.— Ez, ez da ezer... Uste dut ongi eman dudala bozka...!

14. eszena

Maketa garatzen jarraitzen dute. Herri kaskoa denaren atzetik eta gora mapa baten antzekoa destolestean dute. Herri inguruak eta baserriaren artekoak azalduz. Baserrira irudikatzen duen monopolyko etxe baten itxurakoa kokatzen dute.

AGIRRETARRA.— Zazpi behi eta malkarrean landutako baratzea, etorkizun ederra bost senideko familiarako! Kalera hartu behar izan zuten: batek moilara, arrehek txapel fabrikara, Ameriketara hantxe Josemanuel, Brasilera, eta gure Nikola Donostiako Tranbiako tailerretan pintxe. Beti bezala, anaia zaharrena, Martin, gelditu zen baserrirako, moila utzita.

BESTE AGIRRETAR BAT.— Ez da baserri itsusia Casablanca hau, baina garai bateko maiorazkoa zahartu egin da eta seme-alabek ez diote segidarik eman nahi. Etorkizun latza Metxaren anaia zahararentzat, berrogei mila pezetara ailegatzen ez den erretretarekin. Hil artean bizi, zioen besteak. Eta bizi artean lan egin behar, dio baserritarrak.

HIRUGARREN AGIRRETARRA.— Noizean behin azaltzen da Nikola jaiotetxean. Anaiari bisita egiteaz gain, beti dago zeregintxoren bat. Gainera anaia beti izango da anaia, eta ezindua baldin badago anaiago. Traktorearen arrankea ez dabilela ongi, ukuiluak argi gutxi duela, arbia txikitzen makina matxuratu egin dela... Gainera gaur bakarrik da Metxa Casablancan. Anaia Martin medikuan da eta Metxak ezusteko bisita izan du.

METXA.— Ugarte lehengusua genuen guk eta ez duzue izena aldatuko!

Gazte taldea muturik gelditu da maltzur behatzen dien agure egoskor horren aurrean. Neska batek polaroida ireki eta argazki bat egin dio baserriari. ZINEGOTZI bizardunak planotzarra behatzen du. Denak makurtu dira, eta Casablancako gazteena hurbildu egiten zaie, marren gainean harat-honat doan atzamarrari erreparatuz.

ZINEGOTZIA.— Hemendik Xagueneko bidea, hemendik Telleri Berrikoa... Hara, honek behar du hemen seinalatua dagoen baserrira. Casablanca.

GAZTEA.— Aizu, nausi...

- METXA.**— Agirre'tar Nikola Metxa, «Lenago il» Batailoiko Komisaria, Kalamuaren defentsagatik kondekoratua.
- ZINEGOTZIA.**— Bai... bagenekien... Ez dakit ongi ulertu diguzun... gu HETAKoak gara... Herriko kale eta taberna izen guztiak euskaratzen ari gara... Eta, egia esan, zuena da gaztelaniazko izena duen baserri bakarra herrian. Barkatu baina... lotsagarria da.
- METXA.**— Ba zuek ETAKoak izango zarete, baina ni Metxa naiz. Ni Larrinagako kartzelan egona naiz gerra ondorenean dinamita pasatzen harrapatu nindutelako mugan, eta ez ninduten fusilatu munizioa ahitu zitzaielako, jendea akabatzearen akabatzez... Horretxek libratu ninduen!
- ZINEGOTZIA.**— Gaizki ulertu duzu... Gu ez gara ETAKoak, HETAKoak gara. Herria Euskalduntzeko Taldea...
- METXA.**— Eskertzen dizuet interesa... Egia esan gu hemen jaioak gara, baina gurasoak ez, Arbizukoak genituen, hangoa erre eta hau merke zegoela eta hona gurasoak. Ba orduantxe Afrikako Gerra, zuek ikasiko zenuten noski liburuetan. Moruen parajera eraman zuten behintzat amaren anaia bakarra, eta egundaino ez dugu haren aztarrenik izan. Casablanca izeneko herri batean hila ote zen. Eta izen hori jarri zioten... Bizi zela ere jakin genuen gero, hango beltz batekin ezkondua edo. Sagardo pixka bat?
- GAZTEA.**— Ez... Bueno, gastu handia ez bada...
- METXA.**— Ba, haren seme bat Resistence-n sartu zen, aliatuen ispia bezala nazien aurka, bigarren mundu iskanbila horretan.
- METXA.**— Gure lehengusu hori, Ugarte bera, Europatik Amerikarantz ihesi zihoazen judu eta ezkertiarrei bisatuak edo pasaporteak lortzeko arduraduna zen. Bazuen adiskide bat, tabernaria, Rick, noizean behin lagundu egiten ziona sasiko lanetan. Eskatu dizkio behin bi salbokonduktu ihesi datorren bikote batentzat, eta baita gure Ugartek eskuratu ere...Aiba beste trago bat!... Seguru dakiguna da frantsesek detenitu eta naziek erahil egin zutela gure lehengusu hori, Ugarte. Gero filma egin zuten eta dena diruagatik egin zuela ageri da. Baina badakizue filmetan gezurra izaten dela gehiena...

*Izkin batean BEÑAT dago. Taldea harri ta zur utzita
bilobarengana hurbildu da METXA.*

- METXA.**— Halaxe esan nien. Hamaika ikasteko jaio ginen, zera. Zer uste zuten hauek? Nikanor Zabaletari harpa jotzen irakatsi nahi?
- BEÑAT.**— Eta Casablanca izena Afrikagatik da?
- METXA.**— Ugarte lehengusuagatik.
- BEÑAT.**— Ziur?
- METXA.**— Bai, ba... Zergatik esaten duzu?
- BEÑAT.**— Lehengo egunean aitonarekin nengoelako HETAKoak berriro etorri zirenean.

15. eszena

- MARTIN.**— Bai, egia esan seme-alabek ere komentatu izan didate... Ni konforme nago izena euskaraz jartzearekin, baina baserritarrok badakizue nola bizi garen, esnearen prezioak ere lur jo du eta...
- ZINEGOTZIA.**— Lasai, nausi, lortu dugu izen-aldatzeak lekarzkeen gastu guztiak udalak ordaintzea, pintura barne.
- NESKA.**— Dena dela, lehenik eta behin jakin nahi genuke basetxe honen izenburuaren jatorri edo iturburua...
- MARTIN.**— Zuek artean jaio gabeak izango zineten noski... Gerra ondoreneko gauzak dira. Gerrak ez dakarkio gauza onik azpian geratzen denari. Orduan ez genuen hitzik ateratzerik, eta euskaraz arrantzarik ere ez. Halako batean, gure anaia gaztea, lehengo egunean zuekin egon zena, Larrinagako

kartzelan zeukatela, hemen heldu duk guardia talde bat señořita batekin. Ezagutuko duzue, udaleko enplegatua da oraindik... Rosita du izena... Ekarri ditu bada gurera guardiak Rosita señořita horrek, eta gu geure artean ganbaran edo belar-zuloan miaka hasiko zirelakoan berriz tabako gehiago ote zegoen gordea. Baina ez. Zurea bezalakoxe karpeta zabalduz «Aquí es!» esan zien, eta atalburua erakutsi zien atzamarrarekin. Ez zuten asko ulertuko haiek, orduan «Etxezuri» jartzen baitzuen hor, baserriaren izena. Ba, astebete barru kentzen ez banuen, multa izango nuela. «Sabe usted escribir?» esan zidan, eta ezetz, periodikoetako letra handiak irakurtzen besterik ez nekiela. Paper mutur batean idatzi eta eman egin zidan esanez «Pues quite eso y ponga esto!». Hurrengo egunean kendu nuen. Baina hala ere multa jarri zidaten. Ganbaran egon behar du nonbait... geroztik gureari Casablanca esan ohi zaio.

ZINEGOTZIA.— Aizu, nausi, ardura zaizu ganbarara igoko bagina, isuna bilatzera? Dokumentu garrantzitsua izan liteke, gure herriko historia ari gara aztertzen eta...

MUSIKA: TANGO A DO ARABE ANTZEKOA

16. eszena

*Gaua egin da agirretarren herrian. Metxa bakarrik
doa. Beste aldetik alfonbrak saltzen dituen mairu
bat agertzen da.*

METXA.— Gabon dizula.

MAIRUA.— Gauon. Nahi? Etxerako, saloirako. Poli polita ta merkea....

METXA.— Ez, ez dut alfonbrarik nahi. Zuk morua hitzegingo duzu, noski?

MAIRUA.— (Arabez erantzun du)

METXA.— Nola esaten da arabez Etxezuri, Casablanca?

MAIRUA.— Casablanca! Humperi Bogar, Ingri Berman....

METXA.— Eta Ugarte.

MAIRUA.— Ugarte?

METXA.— Bai, nire aittaren lehengusua Ugarte zen eta pelikulan kontaktzen den historia.... Bueno, ze axolako zaizu zuri... Nola esaten diozue zuek Casablancari?

MAIRUA.— Dar el Beida...

METXA.— Beida... Dar el Beida... Idatziko al didazu paper honetan?

MAIRUA.— Ez dakit hainbeste denbora idatzi gabe... Ez duzu alfonbrarik erosi nahi, seguro...

METXA.— Tok...

*Dirua luzatzen dio eta Mairuak idatzi egiten dio.
METXA baserria dagoen mapako tokirantz hurbiltzen
da eta Etxezuri dioen kartelaren lekuan Dar el Beida
dion bat ipintzen du. Etxerako bidea hartzen du.*

17. eszena

Metxa etxean sartzen da. Lurrean zerbait antzematen du. Makurtu eta gutun bat jasotzen du. Ireki.

BEÑAT (Off).— Oso haserre nago zurekin. Hemendik aurrera ez zara nire aitontxipia izango. Ez pentsa, benetan haserre. Zuri barregarriak iruditzen zaizkizunak niri ez naute... ez didate graziarik egin behar derrigor. Ez zara oroitzen lehengo igandekoaz? Ba, meriendatzen ari ginela denok baserrian, izeba Iñaxi heldu zen dena aztoratua behia umea egiten hasia zela. Gogoratuko zara nire aitonak, nire benetako aitonak, esan ziola izeba Iñaxiri joateko Telleri Berrira ea morroia etxean zegoen eta ea etorriko zen laguntzera mesedez, berak nahikoa lan bazeukala bere ziatikarekin. Gauza bat behintzat esan behar dizut. Ni ez naiz oso ausarta, baina beldurtia ere ez naiz. Askotan sartzen naiz larrean sagarrak biltzera behiak eta zezena ere bertan daudela. Zuek uste duzuen baina gauza gehiago dakit. Ez dakidana da zuk zenbat aldiz ikusi dizkiozun behi bati haurraren... umearen hankak ipurdian. Nik uste dut Telleri Berriko morroia etorri ez balitz ez zenutela lan txukunik egingo. Txipi samarra naiz eta ez zait inporta, baina horregatik esango zuen hark «Hi, mutikoa, hoa hemendik!» Baina orduan nik sekula espero ez nukeen irtenaldia izan zuen nire aitontxipiak. Alde egiteko esan zidan berak ere, alde egiteko agindu zenidan igandean.

(BEÑAT eszenan azaltzen zaigu)

BEÑAT (On).— Gogoratzen zara, ezta? Argi dago ni kaletarra naizela, eta ez dakidala baserriko gauza asko nola egiten diren. Zuk badakizu gazta egiten? Nik ere ez. Zuk badakizu ardiak soiltzen? Ez. Eta artilea iruten? Ez. Eta irundakoa astalkatzen? Beharbada inozotzat naukazu eta laguntza baino enbarazu gehiago egingo nuen behiari txekorra kentzerakoan. Ez nago horregatik haserretua. Benetan min eman zidana izan zen morroiaren hitzei zuk gaineratu zeniena. Ez zara oroitzen? Jartzeko ate aurrean, horixe esan zenidan, txekorra lasterka hasiko zela eta deskuido batean eskapo egin zezakeela. Eta barre egin zenuten biek, mozkor zakar horrek eta zuk. Ez zegoen beldurrik ez, txekorrak ihes egin zezan. Jaiotzen ere lanak izan zituen gaixoak! Zuek ahalegina egiten eta ezin diozuela umea kendu Erkori... Orduan nik egin nuen barre, zuen biraoak entzunda eta izerdiak ikusita... Gelako lagunei kontatu diedanean ere algara handiak egin ditugu... Labaindu eta gorotzetan plaust erori zinenean oso jite ederreko gelditu zinen... Azkenean, Erkok katea hautsi zuen, ateratzen zenuten buila eta deiadarrekin ikaratu egin zelako. Aitona Martini kasurik ez zenioten egin, lasai ibiltzeko, ez tira zakarrak egiteko...

BEÑAT (Off).— ...Eta, jakin ezazu, aitona Martini ez ziola barrenak agintzen Telleri Berriko morroiaren eske inor bidaltzea. Ez dakizu? Ba jakinaren gainean egon behar zenuke: sekulako istiluak dauzkagu Telleri Berrikoekin, gurdibideko mugaz honantz sartzen dituztelako behiak geure soroetan. Geure idatzi dut, baina ez dakit zu asko arduratzen zaren... Behin baino gehiagotan komentatu izan dugu mahaietan, zu zarela gure familian Telleri Berriko lapurrei diosala egiten dien bakarra...

BEÑAT (On).— «Lasai Erko, lasai Erko!» esan zion aitonak behiari, eta behiak zuek baino kasu gehiago egin zion. Azkenean nola edo hala kendu zenioten Erkori umea tripa barrenetik eta txekorra ikusitakoan lasaitu egin zineten

berriz, eta nire ama izeba Iñaxirekin ukuiluan sartu zenean gatzarekin, zu bromatarako jarri zinen, beti bezala, eta halaxe esan zenuen niri beha: «Atea ireki, motell, itoko gaituk bestela!» Atea irekita itzuli nintzenez amak galde egin zidan ea zer egiten nuen nik ukuiluan. «Ezer ez, atea zaindu txekorrak ez alde egiteko!» esan nuen nik, eta barre egin zenuten denek. Gorroto zaitzuten.

BEÑAT (Off).— Haserre nago zurekin. Ez zara gehiago nire aitontxipia.

MUSIKA RAFAGA

18. eszena

METXA eta BI ZAKUR eskuin aldetik azaltzen dira.

ZAKURRA 1.— Seguru al zaude?

METXA.— Baietz esango nuke...

ZAKURRA 1.— Ez zenuen okerreko giltza sartuko?

METXA.— Ez dut uste...

Eskaileretatik abiatu da bat, eta igogailuan bestea, biboterrea, agurearekin.

ZAKURRA 1.— Horrela ez dute ihes egingo. Diru asko al daukazu etxean? Edo bitxiak, urrea eta?

METXA.— Ez, ez... Bimilakoren bat uste dut, baina ez dakit non.

ZAKURRA 1.— Okerrago!

METXA.— Okerrago?

ZAKURRA 1.— Bai... Beti utzi behar zerbait lapurrentzat. Eramateko ezer aurkitzen ez baldin badute, haserretu egiten dira. Orduan mendeku hartzen dute: igual hustuko dizute olio guztia moketa gainean.

METXA.— Ez dut moketarik...

ZAKURRA 1.— Edo bisilloak moztu aitzurrekin.

METXA.— Ez dago kuidadorik...

ZAKURRA 1.— Edo telebista baineran ipini eta urez bete.

Ezker alderaino iritsi dira. Artean, eskaileratan gora zetorrena ere ezker aldetik azaltzen da.

ZAKURRA 2.— Inor ez eskaileretan.

ZAKURRA 1.— Egin ezazu saioa berriz giltzarekin, badaezpada.

Nikolak atera ditu giltzak, bereizi du etxeko atekoa, eta erdiraino besterik ezin du sartu. Lasaitu da.

ZAKURRA 1.— Ea, utzi niri. (Baina honek ere ezin du ETA uztaian dituen giltza guztiak probatzen saiatu da)

METXA.— Hori Dar El Beidakoa da

ZAKURRA 2.— Eh?

METXA.— Dar El Beida. Casablanca. Gure familiaren baserrikoa. Eta besteak: atarikoak, buzoikoak, Aitonenekoa...

ZAKURRA 1.— Hautsi egin beharko dugu sarraila...

METXA.— Lasai... Entretanimendua konpontzen!

*Ongi hautsi du bai, sarraila ez baina sarraila
inguruko ate parte.*

METXA.— Baina, baina... Zer da hori, mutilak?

ZAKURRA 2.— Zer?

ZAKURRA 1.— Zer ba?

METXA.— Baina... Aizue, nire etxean ez zarete sartuko pistola eskuan!

ZAKURRA 1.— (*Elkarri behatu diote udaltzainek. Irribarre ere egin dute. Hasperen egin du biboterreak*). Beha, Metxa... Hor barruan dagoen lapurra armatua egon liteke!

ZAKURRA 2.— Utzi guri geure lana behar bezala egiten!

*Zakurrak agurearen harriduraz baliatu dira beren
pistolen atzetik etxe barruan sartzeko. Metxa
sarreran gelditu da, izutua.*

METXA.— Nola arraio ote zekik hankagorri horrek ni Metxa naizela?

ZAKURRA 1 eta 2.— Altxa hadi, jaiki hadi zerri hori! Hemen zegok, Manuel, hemen zegok! Altxa, altxa eta jaso itzak eskuak! Zerria! Orain ere lapurretan! Jantzi agudo eta txakurtegira! Joango zaik logalea han!

*Buila logelatik dator. Zakurrek mutil gazte biluzi bat
astintzen dute. Ohetik atera dute itxuraz.*

METXA.— Baina zer ari zarete? Uztazue bakean mutil hori!

ZAKURRA 2.— Kenduko diogu laster inoren etxean sartzeko gogo!

METXA.— Uzteko bakean!

ZAKURRA 1 eta 2.— Nola?

METXA.— ...mutil hau nire iloba da!

ZAKURRA 1.— Zeeer?

METXA.— Nire iloba dela! Kaixo, Xabier! (*Zuzenean doa mutilarengana, jaitzarazi dizkio besoak eta pistolen aurrean jarri da*) Barka ezak, baina ezin nian etxean sartu eta artabu... zera, udaltzainei esan behar izan zieat...

XABIER.— Kaixo, osaba...

Harri eta zur gelditu dira udaltzainak.

METXA.— Tira, motell, ohera hadi...! Nire iloba itsasoan dabil, eta askotan azaltzen da ustekabe... Eskerrik asko, gazteak! Sentitzen diat partidua ikusten ez uztea... oraindik ere bigarren aldia ikusteko aukera daukazue...

ZAKURRA 1.— (*Pistola triste gordez*) Seguru zaude ez duzula denuntziarik egin nahi?

METXA.— Nire ilobaren kontra?

ZAKURRA 2.— Oso iloba xelebrea daukazu zuk!

METXA.— Bai... leher eginda ailegatzen da gizajoa... Hara, zurrungaka hasia da...

ZAKURRA 1.— Eta... non du maleta?

METXA.— Maleta? Barkuan uzten du beti... Bisita egitera besterik ez da etortzen... Seguru bihar bertan hanka egiten duela berriz...

ZAKURRA 1.— (*Barrurantz mintzatzeko da*) Eta hi, badaezpada, kontuz ibili... Bazekiat zerraldoarena ari haizela egiten... Gu ez gaituk hain erraz tronpatuko...

*Zurrungek erantzuten diote. Nikolak itzali egiten du
logelako argia eta irteerarentz abiatzen da, zakurrak
atzetik datozkiola.*

ZAKURRA 2.— Aizu, nagusi... Zer da hau? (*Markoari josia gelditu den sarrailaren barrualdean azazkalmazteko bat ageri da sartua*).

METXA.— Izan ere... Nire iloba honek baditu halako despisteak... Nire ezpalekoa da horretan... Oraintxe bertan ez nizueke esango non ditudan betaurrekoak... Ez dakit ba zertarako utziko zuen traste hori hor... Beharbada utzi du bihar kaleratzerakoan ikusi eta zer edo zertaz oroitzeko. Nik ere korapiloa egiten diot askotan musuzapiari, baina gero ez naiz oroitzen zer oroitu behar dudan...

ZAKURRA 1.— (*Metxari eskua bizkarrean jarriz*). Ederki, Metxa, ederki... Bagoaz gure lantegira... Baina esaiozu zure... ilobari, kontuz ibiltzeko...

ZAKURRA 2.— Bai... Hurrengo batean topo egiten baldin badugu, ez dago libratuko duen osabarik ez aitapontekorik!

METXA.— Je, nik ere bazeuzkaat esatekoak! Beha nola gelditu den atea bere kulpagatik! Berak ordaindu beharko dit berria...!

*Ate zartatua poliki itxiz zurezko ispilu egin die
oraindik ere susmo gaiztoz behatzen dioten
udaltzainei..*

METXA.— Hau duk aparejua! Eta non egin behar diat nik orain lo?

*Txoko batean kuzkurtzen lo hartzeko. MUSIKA
hasten da.*

*(Posible litzateke hemen kanturen bat egitea.
Musikorik ez dagoenean musika soilak hurrengo
ekintza sorta babestuko du.)*

*Eguna argitu egiten da. Gela barrutik delako iloba
ateratzen da, oraingoan jantzita. Metxak lo darrai.
Albotik pasatzean liburuekin ohartu eta zer dagoen
begiratzen du. Liburu bat hartzen, azal
nabarmenekoa eta besapean gordez Metxarengana
hurbiltzen da. Gutun bat uzten dio esku artean.
Piskatera Metxa esnatu egiten eta eskuan duen
gutunaz ohartuta ireki eta irakurtzen hasten da.*

XABIER (Off).— Kaixo «osaba»: Asko estimatzen dizut bart arratseko portaera. Zorretan gelditu nintzenez, nolabait ere ordaindu beharko nizun, eta beraz ez dizut ezer lapurtuko. Aholku hau emango dizut: utzi beti etxean zer edo zer eramateko moduan, eta begi bistan. Sentitzen dut atearena, baina barkua gaur bertan da berriz itsasoratzekoa eta aldegin beharra daukat. Triste aurkitzen banaiz, idatziko dizut nagoen lekutik. Afrikatik. Edo Bilbotik. Ea ordaintzen dizudan atearena koloretako telebista batekin... Saiatuko naiz, ez da hori nire espezialitatea baina. Ah... Zure ohea bigunegia da, ez da ona hezurretarako. Eta ez utzi tabakoa frigorifikoan, hondatu egiten da eta. Betaurrekoak gatzontzian dauzkazu. Ikusi arte. Zure iloba...

METXA.— ...Xabier. Post Scritum: Egia esan, gezurra esan: nire lanbide honek sobera tiratzen nau, eta azkenean lapurreta egin dizut. Badakizu marinelok bidaia luze eta aspergarriak egiten ditugula, eta behar izaten dugula denbora-pasaren bat. Niri irakurtzea zait atseginen, eta ikusi dudanez liburu zahar eta berri askotxo dituzula, bat hartu dizut: «Nire ohean aurkitu nuen lapurra».

KANTUA: GEZURTIENTZAT

Jose Maria Lopetegi. 1936-XII-12

Ordu biak laurden gutxietan
azaroaren zazpian
pinpi ta panpa kañonazuak

Irunen ta Ondarrabian,
zer ote ziran ainbeste soñu
altxatu giñan abiyen
obetoxiago entzuteko
obetoxiago entzuteko
itsas ertzera joan giñan.
Bi andrek leyo tikan
parrez beriala
Madrid artu zalako
soñuak zirala.
Oik uste zuten zala
Madriden sartzia
kanpantorrera joanta
ezkillak jotzia.

Nik buruari dardar egin ta
au esan nuen aurrena:
gezurra zala soñu auekin
itxura egiten zutena.
Bizkai aldetik gure anaiak
mugitzen asi zirala
ayen aurkako jendia bildu
aien aurkako jendia bildu
ori zala bear zuena.
Nik esanda bezela
urrengo goizian
Irun ta Ondarrabitik
zenbat joan ziran,
oik uste zuten zala
Madriden sartzia
kanpantorrera joanta
ezkillak jotzia

Atabalakin tanborra juaz
gizon bat deika atera
irakurririk erriari deitzen
alkate jaunana papera.
Seietan musika soñuakin
guazen guztiok dantzara
Mondragoi ere guria da-ta
Mondragoi ere guria da-ta
gizona zer ari zera!
Orain erdi gordian
zokuan or daudez
erdiak erotuta
nora joanik ta
nora joanik ez.
Oik uste zuten zala
Madriden zartzia
kanpantorrera joanta
ezkillak jotzia.

Erri guztia engañatuzten
gezurren modu txarrian
orrelakorik ez da egiten
gizon zintzuen aurrian.
Zuek zauztela denen nagusi

Españiako lurrian
Ez daukazute ezkillak jorik
ez daukazute ezkillak jorik
Madriko kanpantorrian.
Arritzen naiz gauz ori
burura etortzia
eta oinbesteraño
gizona erotzia.
Oik uste zuten zala
Madriden sartzia
kanpantorrera joanta
ezkillak jotzia.

19. eszena

Metxa ateko sarraila puskatua konpondu nahian ari da. Albotik MARITXU bizilaguna datorkio.

MARITXU.— Zer, Niko, malobran?

METXA.— Ate joka ibilia naun bai auzo-lanerako, baina ikusten dun...

MARITXU.— Ate joka edo kolpeka behintzat ibili zara bart arratsean...! Egia esan, beti zabilta zarata ateratzen, ez duzu inor telebista lasai ikusten uzten...
(*METXAK ez du erantzuten.*) Oroitzen naiz bai, herri guztia ilundu zutenean ere egun osoan aritu zinen mailuka eta builaka... Ba, jakin behar zenuke ez dela baimenik ematen etxebizitzetan tailerrak jartzeko!

METXA.— Barka ezan, etxekoandre, baina ez zirudin horren belarri minbera dunanik!

MARITXU.— Zer ba, zer ba, zergatik diozu hori?

METXA.— Ba, bart atea hautsi behar izan nuelako etxean sartzearren, eta inor ez zelako azaldu ea zer gertatzen zen...!

MARITXU.— Aizu... ni ez naiz besteren mahaian jartzen... (*Metxak jira egin du, entzungor. Lanari ekin dio, azken torlojua atera behar du.*) Zer gertatu zitzaizun... Giltza ahantzi?

METXA.— Ez... Lapurrak sartu!

MARITXU.— Aitaren eta semearen...! (*Oihu egitearekin batera esku artetik zolara erori zaio Maritxuri jeranio potoa. Buztinezko ontzia lehertu egiten da.*) O, landare gaixoa!

METXA.— Eta ia hire hanka gaixoa!

MARITXU.— Bai, gutxi egin du nire hanka gainera erortzeko... Eta zure kulpagatik!

METXA.— Nire kulpagatik?

MARITXU.— Halako sustoa eman didazu...! Lapurrak hemen...! (*Badoa baina bueltan dator erratza eta jasotzekoa dakartzala. Jasotzen hasten da*) Ez duzu oporrik hartu behar?

METXA.— Oporrak? Ni jubilatua nagon!

MARITXU.— A, zelako zakarra! Eta beti hika...! Esan nahi nuen ez duzun kanpora irten behar, eguzkitara...

METXA.— Ez!

MARITXU.— Ba ni Benidorm-era noa lagun batzuekin...! Abuztu osoa! Hotelean, ez pentsa...! Zer, berria ipini behar?

METXA.— Bai...

MARITXU.— Ba jeranio hauei ere tiesto berria erosi beharko diezu (*Zolatik jaso eta, esku artean estuturik, Metxari luzatu dizkio jeranioak. Besotan hartu behar izan ditu agureak, ezer ulertzen ez duela.*) Kanpora irten behar ez baduzu landareak zainduko dizkidazu!

METXA.— No... nola?

MARITXU.— Banekien nik gizon jatorra zinela zu... Entretenimendua izango duzu gainera. Jubilatu asko aspertu egiten zarete, zer edo zer eduki behar duzue esku artean, bestela nagitu egiten da bat!

Bere etxe barruan ezkutatu da Maritxu. Harri eta zur dago Metxa laguna. Lehertu egin nahi luke, baina ezin du. Hemen da berriz begiak gardenia artean ageri. Loretan lore.

METXA.— Baina, baina...

MARITXU.— Lasai, gizona, oso errazak dira zaintzen. Egunero ihintzatu behar dituzu, baina ilundutakoan, eguraldiak zerbait freskatu duenean. Ez sartu sardin bururik lurtean. Askok indartzen ditu landareak, baina harrak sortzen dira eta niri ez zaizkit harrak gaztan ere gustatzen. Adaskaren bat ihartzen baldin bada, kimatu. Eta argitan eduki loreak. Dotore emango dute gainera zure etxean. Seguru ez daukazula bat ere. Balkoian behintzat ez daukazu. Tira, tira, ez gelditu hor! Besoak nekatu egiten dira! (*Metxa giltza emandako panpina bezala sartu da etxean jeranioak besotan dituela. Atzetik datorkio Maritxu gardeniekin.*) Non utziko ditut gardeniak?

METXA.— Pasilloan!

MARITXU.— Pasilloan? Ez, zure hanka motel horrekin jo eta bota egingo dituzu pasillo estu honetan...

METXA.— Hemen, sukaldean bertan!

MARITXU.— Sukaldean? Kea hartzeko? Ezta arrimatu ere! Hau kuxidatea! Oraindik ohea egin gabe?

METXA.— Hainbat inkontru txar ezagutu, hainbat hil-arrisku gainditu, hainbat zuhaitzetatik eroritako agirretarra... Metxa....

MARITXU.— Ireki leihoa gutxienez! Aireak behar dute landareak! Non da egongela? Askok lapurtu al zizuten? Baina ezin duzu siesta eta lo ohe berean egin? Gizonezkoak izugarriak zarete! Eta aizu, hori al da zapatak biltzeko modua? Seguru mantarekin garbitzen dituzula! Landareei ez zaie hautsa komeni. Leihoa ireki behar da hemen...! Zertarako duzu hainbeste liburu? Denak irakurri dituzu? Tira, joan egingo naiz, ez daukat berriketarako astirik eta. Sarraila ona ipini... Ez nuke nahi nire loreak lapurtzea!

MUSIKA RAFAGA

20. eszena

METXA (Off).— Hilabetea joan da eta erantzuteko garaia izango da noski. Ez, ez nago zurearekin ahaztua. Buru txarra daukat, baina ia egunero gogoratzen naiz ez naizela gehiago zure aitontxipia. Bai, aitona Martinek gauza asko daki. Ni, ordea, kaletarra naiz zu bezala. Ez harritu gorotzetan erortzea. Zure gelako lagunek barre handiak egiten dituzte agure batek eroriko bat hartzen duenean...

(Umeen farre algarak entzuten dira)

Ongi, ongi. Haiek ere erori beharko dute ba agirretarrak izango badira. Esaten didazunez, batzuetan ez zaituzte hain umetzat hartzen eta komentarioak egiten dituzte zu aurrean zaudela. Adibidez, egoskorra naizela eta buru txarra daukadala. Ai, Beñat, oraindik entzungo dituzunak! Eta denak ez dira gezurak izango noski...

*(Senitartekoan txutxumutxuak-eta entzuten dira.
Ondoren Metxaren hitzak zuzenekoak dira)*

METXA (On).— Ni omen naiz familian Telleri Berrikoei diosala ukatzen ez dien bakarra. Eta zertarako ukatu, gero morroiaren eske joan behar baldin badugu? Zure adinekoa izango nintzen ni, hor iratzarri gaituenen aitag zure aitona eta zure aitontxipia izandako hau. Gauerdia-edo izan behar zuen. Janzteko, lana dagoela. Guk pentsatu genuen behiren bat mendian galdu edo egingo zela. Harritu ginen pixka bat aitzurrak hartzeko esan zigunean. Gau iluna zen. Hozkarra zegoen. Gurdibideko gainera heldu garenean, Telleri Berrikoek soro inguruan marka bat egin du aitag gure mugapean, eta aitzurka ekin genion. Ahal genuen isilena jarduteko esaten zigun. Noizbait behar eta mugarria topatu dugu. Orduan aitag Telleri Berrikoen sorora pasatzeko agindu zigun, eta hantxe lurperatzeko mugarria. Telleri Berriko lapur haiek mugarriak mugitzen ibiltzen zirela beti, esan zigun aitag. Egia ote zen? Orduan baietz esango nukeen itsuan. Gaur jada ez naiz hain neuretarren aldeko amorratua. Nik uste dut agirretarren herrian denok garela agirretarrak.

Gero, gerra heldu eta reketeak sartu zirenean, halako istiluak zituzten askok aprobetxatu egin zuten auzoa salatzeko, gorria zela, edo ez zela mezetara joaten, edo nazionalista zela. Eta jendea hartu eta fusilatu egiten zuten. Akabo orduan zorrak edo muga-auziak.

METXA (Off).— Ez dakit eta auskalo noiztik datorren elkarren aurkako hori. Nik aspaldi erabaki nuen ez nuela ezertxo ere jakin nahi halako saltsetan. Ez zait batere axola mugarria non dagoen edo behiak gure soroan sartzen dituzten.

*Irrati txiki bat pizten du eta belarrira peatuta
daukala hor doa. Irratsaioan diskak eskeintzen
dituzten hoietako saio bat ari da.*

Aurreko egun batean banindoan ni egunero bezala neure bueltaxka ematera jubilatuak ibiltzen garen inguru horretan barrena. Nire urtebetetze eguna zen hain zuzen. Ez zebilen inor.

*Lapur bat azaltzen da labana erakusten duela, Baina
Metxak nerak baino bildur handiagoz.*

LAPURRA.— Ekarki diru guztia... *(Metxak eman egiten dio kartera eta honek miatu.)*
Pobre arraioa, hogeituroko bat besterik ez?

METXA.— Eta hiri ez al dik lotsarik ematen jubilatutako bati lapurretan egiteak mendian?

LAPURRA.— Emaidazu irrati hori tripa zulatzea nahi ez baduzu!

METXA.— *(Oihu eta haserre batean)* Hoa hemendik txakurraren salara, nahi ez baduk esne hortzak barreno gaizto batek kentzea, metxa sutua zegok eta!
(Labana utzita hanka egiten du Lapurrak) Adore gehixeago ez baldin baduk goseak hil beharko dik... Nik ez nuen inondik inora irrati txipia galdu nahi egun hartan. Urtebetetzea nuen. Hamabiak ziren eta urtero bezala espero nuen nire bilobak Txirritaren bertso zaharren bat eskaintzea. «Aitontxiarentzat, Beñaten partetik» Eta negar pixka bat ere egingo nuen.

*Irratian saioaren bukaera entzuten dugu «Hau izan
da guztia gaurkoz...», Metxa bere idazmahaira doan
bitartean. Jarri eta idazten segitzen du.*

METXA (OFF).— Ez, ez nago haserre. Ezta minduta ere. Ulertzen dut, klasean egongo zinen eta aurten irakasleak ez zizun telefonora irteten utziko. Edo handitu egin zara eta orain umekeria irudituko zaizu xaharrei kantak eskaintzea. Ulertzen zaitut. Ulertzen zaitut idatzi dut, ez ulertzen dizut. Eta zuk, ulertzen duzu bien arteko aldea? Ea noiz etortzen zaren etxera. Zure laguntza behar nuke Maritxu izeneko andrakila bat etxetik uxatzeko. Gela urdineraino sartzen zait. Hika irakatsi behar omen diot. Zure aitontxipia ezin bada izan, zure adiskidea izan nahi lukeen. Nikola Metxa.

21. eszena

MEDIKUA eta METXA ertz batetik datoz.

MEDIKUA.— Ez zara gaitz honetatik libratuko, baina gaitz honek ez zaitu lurperatuko, lasai gizona!

METXA.— Bai, nik gauza bat behintzat egingo dut, Jainkoak nahi ez badu ere!

MEDIKUA.— Zer?

METXA.— Ba, bai, Jainkoak nahi ez badu ere, hil artean bizi egingo naiz ni!» *(Metxa aulki batean jartzen da eta betaurrekoan bila hasi.)*

AGIRRETARRA.— Horixe esan zion Medikuak metxari etorri zen azkenan. Hobe da bai, belauneko mina sumatzea behatz puntak non dauzkagun jakin gabe ibiltzea baino. Agirre'tar Nikola, *Metxa*, Santoñan preso hartua, kanjeatua, 140 Brigadako 44 Dibisioko Bizente Egia kapitainaren laguntzailea. Elgetan ere elkarrekin ibiliak, «Kirikiño» batailoian. Minik ez sumatzea zuten orduan kezkarik handiena. Ez zuten zauritu ere egin, baina ez zegoen balak joa izan beharrik ebakuntza egiteko: hotzak min guztiak lokartzen ditu, eta izotzez lo hartutako behatzak, eta zangoak ere, moztu egin behar izaten dira... Baina behatz txipiraino osorik *Metxa*. Mindun *Metxa*. Urtero etortzen da medikuarengana, eta urtero irteten da irribarre maltzur bat ezpainetan duela kontsultatik. Espero dezagun aurten ere hala izatea, zaharrak bakan izaten ditik pozak.

MEDIKUA.— Hurrengoa, mesedez! *(Altxa egin da belaunari eutsiz. Inurrituak dauzka zango biak.)* Jarri, jarri. Zure izena?

METXA.— Nikola Agirre. *(Fitxa ateratzen du.)*

MEDIKUA.— Urtero etorri behar dutenetakoa zara...

METXA.— Bai... Eta urtero etorri beharrarekin pozik! I

MEDIKUA.— *(Irri egiten du)* Bueno, ikusten dut psikologikoki ongi zaudela...Aizu... esango zenidake iaz zer galdetu zizuten?

METXA.— Ea zer moduz belauna!

MEDIKUA.— Eta... zer moduz belauna?

METXA.— Mina sumatzen dut oraindik eta... pozik!

MEDIKUA.— Ongi... Zein belaun da?

METXA.— Eskuinekoa!

MEDIKUA.— Hau?

METXA.— Ez, eskuinekoa... Bestea!

MEDIKUA.— Ongi, ongi... Garbi dago psikomotrizitatez ere ez zabiltzala gaizki... Zein letra azaltzen dira pareta horretan?

METXA.— Ele... Eme... Ka... Pe... U...

MEDIKUA.— Oso ongi. Ea besteok?

METXA.— Erre... Ez, efe... Te... E... Ez, be...

MEDIKUA.— Ongi, nahikoa da. Zatoz hona. *(Bolante bat luzatzen dio.)* Ikusten duzu autotxo hori?

METXA.— Bai.

MEDIKUA.— Martxan hasiko da gero eta biziago, eta zeuk gidatu beharko duzu hor ageri den errepide horretatik irten gabe. Ulertzen?

METXA.— Oso ondo.

MEDIKUA.— Heldu bolanteari. Sakatu egingo dut botoia, eta abaila hartuko du.

METXA.— Nahi duzunean.

*Medikuak botoia sakatu du. Autoak egundalako
burrundara atera du ke eta guzti. Abiatu da.*

MEDIKUA.— Saia zaitez zeure eskuinetik joaten.

*Ondorengoak soinuen bitartez iradokiko dira.
Bihurgune bat sortu da ustekabeen pantailan, eta
Nikolak ezkerrera jiratu du zakar. Makinak irrintzi
egin du, eta autotxoa bidetik irten da zuhaitz bat jo
eta boteaz, Etxalarko hartan bezala. Garabiak
txatarra uzten duenean bezalako zarata atera du
makinak itzali aurretik.*

MEDIKUA.— Ongi, nahikoa da. Hurbileko betaurrekoak erabiliko dituzu...

METXA.— Bai, baina ez ditut ekarri...

MEDIKUA.— Ez du axola, lasai... Eta urrutirako?

METXA.— Ez, urrutira ongi ikusten dut...

MEDIKUA.— (*Hasperen luze bat egin eta gero*) Beha, Agirre jauna... Psikologikoki sendo ikusten zaitudanez, uste dut ez duzula gaizki hartuko orain esango dizudana... Psikomotrizitatez ongi samar zaudenez, balekoa emango dizut aurtengoa, baina hau duzu azkena. Hobe duzu, zeure onerako, eta bestean onerako ere, kotxea gidatzeari uztea.

*Eta eskua luzatu dio. Eta isilean ateraino laguntzen
du.*

METXA.— Hamar urte dira, jubilatuko baino askoz lehenagotik, kotxea gidatzeari utzi niola, Etxalarko bihurgune hartan bazterra jo nuenean. Autoa txatarrarako eta klabikula igeltsurako gelditu zitzaizkidan, eta erabaki nuen zahartua nengoela, abisu bat zela. Baina bitartean, jarraitu egin dut medikuarenera urtero etortzen. Eta hamar urte luze egin ditut besteek gazte eta bistadun ikusten nautela frogatzen, gezurra dela jakinik. Urtero medikuarenean azaldu beharraren poza kendu didazu... (*Badoa.*) Oraintxe bai Metxamotz, ez zeukaat luzerako... Laster botako naitek etxe zahar honetatik, baimena emanda gaudek maizter hemen... leku egin beharra zegok agirretar berrientzat, eta agureok erlojua aurreratua zeramaagu... Baina Txurkoeneko baratzera eraman aurretik hartu behar diat nik kotxe baten bolantea oraindion... Edo tanke batena, Bruneteko hartan bezala, Paulov jeneralak eskua eman zidanean... Agirre'tar Nikola, Metxamotx, milixiano xaharra... Badaukak nora apuntatua...

22. eszena

AGIRRETARRA.— Anek ihes egin du. Bila etorri zaizkio zakurrek zaunkarik tristeena egiten duten orduan, baina ezin izan dute harrapatu. Miaka jardun dute, mehatxatu dute Patxi tabernaria, baina ez dute ezer aurkitu. Eta hartu duten amorruekin semea eraman diote, zinegotzi bizardunarekin bilerak egiten dituen.

PATXI Metxaren etxera sartzen da.

PATXI.— Metxa! Metxa....!
METXA.— Zer duk?
PATXI.— Aneren bila etorri dituk.
METXA.— eta?
PATXI.— Ez, alde gin dik lehiotik karkabara jauzi eginik. Baina mendekuz edo semea eraman ditik. Hik ba al duk zinegotzi bizardunaren telefonoa?
METXA.— Hemen nonbait ibili behar dik... To
PATXI.— Bixar? Bai... A, bai?... Bai... Bai... Eskerrik asko... Lasai egoteko agindu zidak, argitu arte ez dagoela zer eginik, joango dela bera Epaitegira denuntzia jotzera. Berak badakiela mutilak ez duela ezer, libre utzi beharko dutela segituan...
METXA.— Tira... hala dela uste baduzu...
PATXI.— Nik ez, zinegotziak.
METXA.— Horrexegatik....
PATXI.— Milesker Metxa.

*Patxi badoa eta Metxak gela urdinera jotzen du.
 Paperak begiratzten eta sailkatzen hasten da, batzuk botatze asmoz. Egunak argitu egiten du.*

ZAKURRA 1.— Egun on, Agirre jauna!
METXA.— Egun... Baina...?
ZAKURRA 1.— Zer, logalerik ez?
METXA.— Baina... Nor zarete zuek? Zer egiten duzue hemen? Nola sartu zarete nire etxean?
ZAKURRA.— Atea irekia zegoen eta, gosaltzera gonbidatu nahi zaitugu.
METXA.— Irekia? Ez dut uste.
ZAKURRA.— (Plaka bat erakusten dio) Ba ez, ez zegoen irekia, baina zeuk ireki diguzu.
METXA.— Nik?
ZAKURRA.— Bai, zuk. Orain bertan ireki diguzu. Ez zara oroitzen?
METXA.— Ez, hori ez da egia...
ZAKURRA.— Hara, gezurretan ari naizela esan nahi duzu?
ZAKURRA 2.— Tailerrera eraman beharko dugu oroimena pixka bat zuzentzeko, Txabi...
ZAKURRA 1.— Baina aurretik miaketa egin behar dugu. (*Paper bat ipini diote sudurpean*) Begira, mordoak daukagu. Denak juezak alde zaurretik sinatuak. Guk izena jarri eta nahi dugun etxean sartzen gara... Botere handia dugu guk, Agirre jauna...
ZAKURRA 2.— Ajajá, leihoa irekia daukazu egiten duen hotzarekin... Zer ari zinen, paper arriskutsuren batzuk patiora botzen, ezta...?
ZAKURRA 1.— Ongi... Ekarri duzu lekukoa, Iñaki?
ZAKURRA 2.— Hemen dugu, bai

Maritxu azaltzen da.

ZAKURRA 1.— Ederto (*Paper zimur bat ateratzen*) Sina ezazu hemen!
MARITXU.— Nik ez dut ezer sinatuko!
ZAKURRA 2.— A ez, e?
MARITXU.— Ez.
ZAKURRA 1.— Beha ezazu, etxekoandre...
MARITXU.— Ni ez naiz ez etxekoandre eta ez neskame. Errespetu pixka bat. Zergatik ez dituzue atxilotzen parkeetako loreak zapaltzen dituzten txakurren jabeak? Jaun honek ez du ezer egin!
ZAKURRA 2.— Barka ezazu, andereño... Ahal duguna egiten dugu. Baina jaun honi hemen ikusten duzun liburu eta paper zahar mordo hau harrapatu diogu...

MARITXU.— Bereak ditu!

ZAKURRA 1.— Hain zuzen, hain zuzen... Ez zaizu iruditzen susmagarria dela Agirre jauna goizeko lauretan egotea gela urdin batean, leihoa irekita, liburu eta paper hauek guztiak lurrean dituela? E?

MARITXU.— Nik ez dut ezer sinatuko. Zuek ez duzue lotsarik ez kontzientziarik. Zuek daukazuena da bibotea baltz, eta begia baltz, eta ahoa baltz...

ZAKURRA 2.— Aizu, aizu, andereño...

MARITXU.— ...eta nik badakit zuek zeuek ekartzen dituzuela nahi dituzuen paperak eta madriak gero inori harrapatu dizkiozuela esateko. Nik ez dut ezer sinatuko!

Maritxu badoa. Musikaren laguntzaz Zakurrek Metxa mahai batera ermaten dute.

MUSIKA RAFAGA

23. eszena

ZAKURRA 2.— Non egon zinen iaz uztailaren lauan?

METXA.— Ez dakit.

ZAKURRA 1.— Eta aurten, martxoak hogeia, non egon zinen egun osoan?

METXA.— Ez naiz oroitzen...

ZAKURRA 1.— Ez kezkatu, ulergarria da...

AGIRRETARRA.— Ongi, Metxa. Horrelaxe, ez beldurtu. Azkenean barkamena eskatu beharko ditek. Ez kokildu.

ZAKURRA.— Neuk lagunduko dizut: aurten, martxoak hogeia zituela, goizeko bederatzietan pasa zinen mugatik, eta ez zinen itzuli gaueko hamarrak arte... Oroitzen?

METXA.— Zer edo zer, bai...

ZAKURRA 2.— Lasai, Agirre jauna... Ni ere sarri joaten naiz Iparlandara... Eta ez gazta eta pateak erostera bakarrik. Zeu bezala, noski... Bakarrik joan zinen, ezta?

METXA.— Ez...

AGIRRETARRA.— Metxa ergela! Harrapatu haute! Hau galdu bahaiz, etzakela hurkoa galdu. Ane, Ane. Bai, hori duk, har itzak denak heure gain. Salba ezak Ane!

ZAKURRA 1.— Lasaitu zaitetz, Agirre jauna. Ez duzu inor salatu beharrik. Guri ere nazka ematen digute lagun hurkoa berehala saltzen duten txepelek. Zuk esan gabe badakigu Anerekin ibili zarela Iparlandara pasatzen, zure iloba ikustera. Ongi. Osaba batek egin behar du horrenbeste.

AGIRRETARRA.— Tropako kapellaua ematen dik honek, kontu eman gero! Amua bota dik. Orain Ane non dagoen jakingo duala-eta, taktika aldatuko dik. Gogor, Metxa!

ZAKURRA 2.— Sina ezazu hemen!

METXA.— Ez!!!

ZAKURRA 1.— Ja, ja... Ez duzu sinatu nahi, ezta? Azeri zaharra zarela zu ere! Ondo egina, Metxa. Ez da paper zurian inoiz sinatu behar...

AGIRRETARRA.— Kontuz, Nikola, kontuz...! Losintxa egiten dik orain. Hauek dena zakitek. Pausoak hartzen ibili zaizkik urteetan, eta heu ohartu ez... Kontuz, kontuz!

ZAKURRA 2.— Ez al da zurea sinadura hau?

AGIRRETARRA.— Sinadura eta data, liburuetan jartzeko ohitura duanez. Francoren garaiko gauzaren bat harrapatu ditek.

METXA.— Neurea dut, bai.

ZAKURRA 2.— Ongi, badakizu zuhurtziaz jokutzen. Hobe zuretzat, gu ez baikara inozoak. Ez dizugu galdetuko zer egiten zenuen egun horretan, urte horretan, Iruñean. Ez. Beharbada Sanferminetan ibiliko zinen. Neu ere han izaten naiz urtero painueliko gorria lepoan patxarana edaten txosnetan... Zein peñatakoa zara zu?

AGIRRETARRA.— Oraintxe bai arriskuan zaudela, Metxa. Kontuz lasaitu. Beidok! Zoratu egin nahi haute.

ZAKURRA 1.— «Nire ohean aurkitu nuen lapurra»... Zurea al da liburu hau?

METXA.— Bai... Ez... Baliteke...

ZAKURRA 1.— Noski, noski... Baina zuk izan duzu inoiz halako bat?

METXA.— Irakurri nuen behintzat...

ZAKURRA 1.— Nik ere irakurri dut. Oso polita. Maiztegi hori oso idazle ona da. Lastima da kartzelatik ihes egina... Ez du astirik izango orain idazteko... Mesede bat egin nion atxilotzearekin, ez duzu uste?

METXA.— Baliteke, bai...

AGIRRETARRA.— Ongi, ongi. Ez amuari heldu.

ZAKURRA 1.— Ez dakigu irakurri zenuen, baina zeurea dela seguru xamarretik jotzen dugu guk... Irakurri, mesedez, hemen ipintzen duena.

METXA.— «Agirre'tar Nikola, Metxa, Iruña, mila bederatziehun eta hirurogeita lauuko uztailak zortzi.»

ZAKURRA 2.— Oso ohitura txarra da arrastoak uztea. Uste genuen bizkorragoa zinela. Hasiberri baten akatsa da izena paperetan uztea.

METXA.— Barkatu, baina ez dut ulertzen... Liburu hori neurea nuen, eta... Bueno, neurea da oraindik.

AGIRRETARRA.— Zer esan duk? Isildu hai, Metxa!

ZAKURRA 2.— Noski, noski... Beha ezazu, Agirre'tar Nikola jauna. Gomendio bat emango dizut adiskide bezala: hobe zenuke astiro hitz egin hemendik aurrera. Zeurea bada, nori utzi zenion?

METXA.— Utzi? Inori ez!

ZAKURRA 2.— Et, et, et... gaizki zoaz bide horretatik!

AGIRRETARRA.— Orain zaflaka hasiko zaizkik. Lasai, kasik hobe duk lehenbailehen hasiko balira. Akabo zurikeria, eta ea nor egoskorrago.

ZAKURRA 1.— Ez zenion inori utzi beraz?

METXA.— Ez.

AGIRRETARRA.— Kontuz, kontuz, kontuz...!

ZAKURRA 1.— Ederto, ederto. Lapurtu egin zizutela esan behar diguzu?

METXA.— Noski! Lapurtu egin zidaten eta!

ZAKURRA 2.— Lapurtu egin zizuten... Denuntziarik jarri zenuen? Non?

METXA.— Ez, ez nuen denuntziarik jarri... Egia esan, liburu batengatik...

ZAKURRA 1.— Eta... non ebatsi zizuten liburua?

METXA.— Etxean!

ZAKURRA 2.— Haserretzen hasi behar dudala esaten dit sudurrak. Agirre jauna, zuk sinetsarazi nahi diguzu liburu bat ebasteke sartu zirela lapurrak zure etxean?

METXA.— Hala da ba... Barkatu jauna, baina esango zenidake non aurkitu duzuen liburu hori? Detenitu egin duzue Xabier marinel...?

AGIRRETARRA.— Orain bai galdu haizela. Nola esplikatuz behar diek hauei...? Eta Xabier lapur loti haren gutuna aurkitu badute paperen artean? Nola esan behar diek udaltzainek ez eramateko jukutria izan zela? Hauek sinetsi? Eutsi, Metxa. Badator benetakoak!

ZAKURRA 1.— Ez dakigu txantxetan ala benetan ari zaren... Baina gauzak behar bezala egin nahi ditugu. Denon artean, ulertzen? Eman dezagun benetan ari zarela, ez dakizula non aurkitu dugun zure liburu hau. Konforme. Baina, mesedez eskatzen dizugu, esaguzu nola iritsi zen zure liburu hau izugile talde batek On Kixoteren hezurdura bahitua zeukan zuloraino, e?

AGIRRETARRA.— To! Horra zer ekarria dian Xabier edo apareju hark koloretako telebistaren orde. Baina erne. Hauetako bat izan zitekeen lapur xeble

hura, jator itxuran heure etxean sartu eta dena miatzen ibiliko zuan...
Txarto, Metxa, txarto!

ZAKURRA 1-2.— Zeuk eraman zenuen zulora? Komandoko bati utzi zenion? Nori? Zeu zinen bahitzaileetariko bat? Ala zuloan sarrerako mekanismoak egin zenituen? Paper askotxo dauzkazu zuk eskema elektrikoekin etxean! Eta zertarako behar ditu hainbeste tornu eta torloju zu bezalako jubilatutek? E?

AGIRRETARRA.— Ez hadila izutu, Metxa. Agirretarra beti. Ez haiz aurrenekoa ataka honetan, eta ez haiz azkenekoa izango noski. Aurrera bolie. Gogor.

ZAKURRA 1.— Hamar minutu uzten dizkizut, Agirre jauna, deklarazio dotore bat pentsatzeko...

METXA.— Abokatu bat nahi dut!

ZAKURRA 1.— Beharra daukazu! Iñaki, pasaraz ezak abokatu jauna!

AGIRRETARRA.— Kontuz gezurrezko abokatua izan, edo berauetako bat: karrera ikasten ditek orain.

ABOKATUA.— (*Sartuz*) Egun on, Niko. Zer moduz zaude? Sinarazi dizute ezer?

(Metxa mututurik)

AGIRRETARRA.— Niko al haiz orain? Niko? Kontuz! Honek ez dik itxura onik! Erne!

METXA.— Aizak hi, ni...

ABOKATUA.— Maritxu andereñoak agindu dit zure kargu egiteko!

AGIRRETARRA.— Zinegotzi txatxua! Ez dik ilunpe orokorrekoa barkatu ...

ZAKURRA 1.— Hamar minutu bederatzietarako. Bederatzietan hasiko gara itaunketan. Ikusi duzu, abokatu jauna, zure bezeroa osorik dagoela. Gu kafetxo bana hartzera irtengo gara Agirre jaunak bere oroimena zuzentzen duen artean...

ABOKATUA.— Galdeketa bederatzietan bada nik ere kafea hartuko dut. Nahi duzu zuri ere ekartzea, Niko? Ebakia, hutsa?

Metxak ez du erantzuten. Zakurrak eta abokatua kanpora doaz.

AGIRRETARRA.— Ez, abokatua ez duk berauetakoa, eta hainbat okerrago: Maritxu alarguna eta heu ote zarete agirretar bakarrak herri honetan?

METXA.— Abokatu ergela... Horrek ere egia esatea nahiko du...

AGIRRETARRA.— Zer egin behar duk, txapelbako Agirre'tar Nikola horrek? Egia esan? Sinetsi egingo ditek.

METXA.— Ba ote?

AGIRRETARRA.— Zer lotsa, Metxa, zelako laidoa: libre utziko haute!

METXA.— Hauek dena zakitek ordea!

AGIRRETARRA.— Bai, dena zakitek baina ez zakitek hirea den edo ez den.

METXA.— Ezin naitek libre utzi! Ni Metxa naiz, agirretarra!

AGIRRETARRA.— Agirre'tar Nikolak ezin dik hemendik irten gezurrik esan gabe... Halako derrotarik! Gezur eder bat, gezur metxadun bat, esku artean lehertuko zaiena...

METXA.— Nik merezia diat hauen kartzela!

AGIRRETARRA.— Gogor Metxa, eutsi Metxa, azkar Metxa, asma ezak eroriko eder bat Beñatek aitontxipi handi bat duela esan ahal diezaien gelakoei...!

METXA.— Kartzela, eta gero...!

AGIRRETARRA.— Gero ihesaldia!

METXA.— Bai, berrogeita zazpian Ocañan antolatu genuen hura bezalako bat...

AGIRRETARRA.— Horixe!

METXA.— Agirre'tar Nikolaren deklarazioa: adina dela kausa akordutik joan zaizkidan beste ekintza mordoaren artean aipagarria da zortzi urte nituela, agirretarren armada sekretuaren aginduz, nire herriko kanpandorrera igo eta kanpaia ardatzetik askatu nuenekoa. Kanpaiak lur jo zuen, eta

herritarrak lurrikara zetorrela esanez kaleartetik mendira bidali
genituenean, kanpaia lera batean lotu eta zoko sekretu batean gorde
genuen, arragoan urtu eta gure lehen munizioak egin ahal izateko.
Ekintza honek graduak eman zizkidan, eta bizarra egiten hasi baino lehen
nintzen izarduna. Ehundaka borrokalditan hartu dut parte, milaka segada
paratu dizkirate, baina harrapatu nautenetan, ez naute inoiz bizirik
harrapatu. Metxa dut sasiko izena, herren egiten dut eskuinetik eta nire
ibilera guztiak izan dira okerrak...

*Musika entzuten hasten da. Agirretarren bandera.
BEÑAT TXIPIA aurretik datorrela piskanaka Agirretar
guztiak eszenario erdira datozt hurrengo bertsoak
kantari.*

Badakit agirretarrak
eta antzeko belarrak
Mundu hontatik azkar garela
jorra beharrak:
Librotasunaren garrak
sortu ohi ditu negarrak
Horiek denak dirade gure
labeko kedarrak.

Araotzeko agote
urre-goseko arlote
Bizio zikin guztien fama
egin diote.
Ez dakienik ba ote
agirretarra zen Lope
Librotasuna ukatzen zuten
errege'n traidore.

Agirretarren bandera
fusilatuen kantera
Gure asmoak orandik dauka
zaila tankera.
Goitik doa hegabera
basa-izarren artera
Derrotatuak ez du bildu nahi
inoren mendera.

Amaiera